



SOCIEDAD DE CIENCIAS
SCIENCE SOCIETY
SOCIÉTÉ DE SCIENCES

Bultzatzailea:

Babeslea:



**IRUNGO BONBARDAKETEN INGURUKO
TXOSTENA (1936ko abuztua-iraila)**

1. Sarrera	3
2. Aire gerra eta zibilen aurkako bonbardaketak Gerra Zibilean	3
2.1 Gerra totala	4
2.2 Gerra Zibila aireko gerraren esperimentazio gune bezala	5
2.3 Bonbardaketen helburuak: militarrek, estrategikoak eta psikologikoak	7
2.4 Bonbardaketak, biztanleria zibila eta hiri-suntsiketa	9
2.5 Iparraldeko frontea eta bonbardaketak Euskal Herrian	9
3. Irungo kanpaina militarra Gipuzkoako ofentsibaren testuinguruan	10
4. Irungo bonbardaketak	13
4.1 Euskarri dokumentala	14
4.2 Irungo bonbardaketak: 1936ko abuztua eta iraila	17
5. Irunen suntsipena eta osteko narratiba	44
Hemerografia	49
Eranskina:	50
Irungo bonbardaketen taula (1936ko abuztua-iraila)	50

1. Sarrera

Irun 1936ko udan matxinatutako tropek Gipuzkoan egindako erasoaldiaren agertoki nagusietako bat izan zen. Frantziako mugan zuen kokapen estrategikoaren ondorioz, hiriak lehen mailako garrantzi militarra hartu zuen Gerra Zibilaren lehen asteetatik. Irungo Bataila deritzonaren testuinguruan, herritarrak eta hiria bera aireko, itsasoko eta lurreko bonbardaketa kanpaina handi baten mende geratu ziren. Kanpaina horrek zuzenean eragin zien bai biztanleria zibilari eta baita hiri-eremuari ere.

Hala ere, Irungo suntsipena, memoria kolektiboan zein narratiba historiografikoaren zati handi batean, 1936ko irailaren 4an eta 5ean errepublikanoak erretiratu zirenean piztutako suteei lotuta geratu da. Hamarkada askotan, eztabaida batez ere suteen egiletzan eta baldintzetan oinarritu da, interpretazioen arabera milizia anarkistei edo erretiratzen ari ziren indar errepublikanoei egotzitakoak. Ikuspegi horrek bigarren maila batean utzi du hiria suntsitzeko prozesua ulertzeko erabakigarria den elementu bat: okupazioaren aurreko bonbardaketen kanpaina sistematikoa. Hiriak jasandako bonbardaketen azterketa espezifikoa arreta mugatua jaso du orain arte. Horren ondorioz, hiriaren suntsiketa gertakari puntual baten emaitza gisa interpretatu da. Azpiegiturak hondatu zituzten, herritarren eguneroko bizitza aldatu zuten eta hiriaren kolapso material eta humanoa eragin zuten bonbardaketen eragin metagarria ez da kasik aztertu.

Txosten honen helburua ikuspegi hori osatzen laguntzea da, Irunek 1936ko abuztuan eta irailean jasandako bonbardaketak aztertuz. Horretarako, erasoak aireko gerra modernoaren garapenaren eta Gerra Zibilaren ezaugarri izan ziren biztanleria zibilaren aurkako indarkeria mota berrien testuinguruan kokatzen dira. Era berean, bonbardaketen kanpaina kronologikoki berreraiki da, hainbat dokumentu-iturriren kontrastetik abiatuta, haien garapena, helburuak eta hirian eta biztanleengan izandako ondorioak identifikatzeko. Bonbardaketak ez ziren kanpaina militarren bigarren mailako gertaera izan, Irunen aurka zabaldutako estrategiaren funtsezko elementua baizik. Prozesu hori aztertzeak aukera ematen du hiriaren suntsipena modu osoan ulertzeko eta gertakariak Gerra Zibilean biztanleria zibilaren aurka erabilitako indarkeriaren bilakaeraren barruan kokatzeko.

2. Aire gerra eta zibilen aurkako bonbardaketak Gerra Zibilean

Irunek 1936ko udan jasan zituen bonbardaketak ez ziren gertaera isolatuak izan. Kontrara, gerrarte aldian gerra egiteko moduan eman ziren aldaketen testuinguruan kokatu

behar dira gutxienez. Abiazio militarren garapenarekin, eta “gerra totala” deiturikoaren kontsolidazioarekin, guztiz aldatu zen gerra. Zentzu horretan, Gerra Zibila dinamika berri hauen lehen eszenatokietako bat bilakatu zen. Hirien eta hiriguneen aurkako bonbardaketak estrategia militarren baitan txertatu ziren, ondorio psikologiko eta sozial izugarriekin. Guzti hau oinarritzkoa da Irungo kasua ulertzeko, non aire gerrak paper garrantzitsua jokatu zuen hiriaren hondatzean.

2.1 Gerra totala

Gerrarte aldia deituriko periodoan, garapen teknologiko eta militarrek guztiz aldatu zuen gerraren ulerkeria bera. Aurretiko gerra eredu tradizionalak lotura gehiago zuen armaden arteko konfrontazioarekin. Aldi honetan, ordea, gatazkaren logika aldatu zen, non biztanleria zibila eta erretagoardia ere zuzenean sartuta egongo ziren. Aeronautika militarren zein “aire gerraren” teorien garapenarekin, gerra modu berri bat hasi zen irudikatzen: soldaduen eta zibilen arteko banaketarik gabekoa (Arnabat Mata, 2017: 96).

Bonbardaketen materiara etorritik, biztanleria zibilaren gaineko lehenengo bonbardaketak XX. mendeko lehen hamarkadetan hasi ziren jada. Berezi, Lehen Mundu Gerraren ostean. Halaz ere, erasoaldi hauek oraindik mugatuak eta noizbehinkakoak izan ziren. Gerrarte aldian, ordea, industria aeronautikoa hobetuko da, bai eta abiazioaren suntsitze-ahalmena handitu ere. Honek, guztiz aldatuko du aireko gerra egiteko modua eta honen papera bera (Díez Pomares, 2016: 182). Testuinguru honetan, hurrengo atalean azalduko den moduan, hasi ziren hainbat teoriko militar bonbardaketak gerra modernoaren elementu zentral gisa planteatzen.

Aireko gerra honek, beraz, posible egiten zuen “gerra totala” deiturikoa: frontearen eta erretagoardiaren arteko banaketa hautsiz. Modu honetan, Estatu bat gerran sartzean –Gerra Zibila gure kasuan– gizarte osoa pasako zen helburu militar izatera. Aldaketa hau ulertzea ezinbestekoa da Irun bezalako hirien bonbardaketak ulertzeko. Izan ere, halako biolentziak ez zituen soilik helburu estrategikoak izan, hiri-espazioa eta populazio zibilari ere zuzenean eragin ziolako.

Zentzu horretan, aipatu dugun soldadu eta zibilen arteko lerroaren ezabapena gerra garaikideen ezaugarri nagusi bilakatu zen. “Gerra totalak” hain zuzen ere, biztanleria babesteko espazioen ezabapena zekarren, zibilen eta hirien aurkako indarkeria gatazkaren beraren egiturazko dimentsio bihurtuz (Ranzato, 2004: 129-130). Biolentzia, hortaz, ez zen

borroka zelai batera mugatuko soilik, hirietara eta biztanleriaren eguneroko bizitzara ere iritsiko zen. Ildo horretan, bonbardaketen eragina ez zen soilik hildako zenbakiagatik neurtuko, baita hiri baten funtzionamendu, beldur kolektibo, suntsipen material eta biztanleriaren desplazamenduagatik ere.

Gerra Zibila ere, hain zuzen, gerraren paradigma berri honen baitan garatu zen. Nahiz eta zentzu batean gerra konbentzional baten ezaugarriak izan zituen, aldi berean, aireko gerraren estrategia berriak sistematikoki aplikatu ziren Europako lehen agertokietako bat ere izan zen (Herreros & Criado, 2009: 422). Ikusiko dugunez, bonbardaketak gerra totalaren logikan txertatzen hasi ziren, hiriguneen eta biztanleei ere zuzenduz, beldura, desmoralizazioa eta desagite soziala bilatuz (Arnabat Mata, 2017: 96).

Garaikideek ere gerra modu berri baten hasiera gisa ulertu zituzten bonbardaketa hauek. Arthur Koestlerrek, Madrileko bonbardaketak gogoratzean, adierazi zuen benetako izugarrikeria ez zegoela soilik suntsipen fisikoan, baizik eta “soldaduen eta zibilen arteko bereizketa zaharra ezabatu” eta “heriotza zerutik bereizketarik gabe iritsiko zen” garaia hasten zelako pertzepzioan (Ranzato, 2004:128). Testuinguru horren barruan, iparraldeko fronteko hiriak, Irun esaterako, aireko gerraren dinamika berri honen lehen eszenatoki bihurtu ziren. Lehen saiakerak izan ziren, ondoren handituko zuten bonbardaketen suntsipen materiala, zibilen gaineko presio psikologikoa eta hiri-espazioaren pixkanakako desartikulazioa gauzatzeko. Hain zuzen ere, Madrilén data bertsuetan bonbardatu zuten Irun, eta hegazkin berdinekin prentsa internazionalaren arabera. Hortaz, txosten honetan islatzen saiatuko garenez, Irungo kasuan bezala aireko gerra, unean uneko erasoez haratago, hiri eta gizartearen kolapso prozesu zabalago baten parte da.

2.2 Gerra Zibila aireko gerraren esperimentazio gune bezala

Aurreko atalean esan bezala, Gerra Zibilaren garaian abiazio militarren aldaketa handi bat eman zen justuki. 1920 eta 1930eko hamarkadetan, Europako potentzia handiek bonba-hegazkinen hobekuntza handia gertatu zen. Aldaketa teknologiko hau, baina, pentsamendu aldaketa batekin batera gertatu zen.

Guilio Douhet jeneral italiarrak 20. hamarkada hasieran, bonbardaketen funtzioen planteamenduak garatu zituen. Bere ustetan, suntsipen materialaz gain, biztanleria zibilaren morala hautsi eta Estatuaren kolapsorako balio zuten bonbardaketen. Ideia honi jarraiki,

abiazioa erabateko gerraren funtsezko tresna bihurtu zen. Douheten teoriak, hortaz, dimentsio berri bat mahaigaineratu zuten: gerrak irabazteko terrore psikologikoa erabiltzearen erabakia (Villarroya i Font, 2017: 21-23). Aipaturiko generalaz gain, britaniako Trenchard mariskalak edota Bill Mitchell general estatubatuarrek, besteak beste, halako ideiak garatu zituzten periodo honetan. Horrela, kontsentsu internazional bat sortu zen aire gerraren funtzionaltasunaren inguruan (Villarroya i Font, 2017: 27-28).

Gerra Zibila hasi zenean, beraz, teoriko hauen usteak lehen aldiz frogatu ahal izan ziren eskala errealean. Garapen azkar hau ondo islatzen du adibide honek: gerraren hasieran zur eta olanazko biplanoekin hasi eta hiru urte baino gutxiagoan abiadura handiko eta karga-ahalmen handiko metalezko monoplanoak zeuden (Alpert, 2020: 10-11). Horregatik diogu, hain zuzen, Gerra Zibila izango zela Bigarren Mundu Gerraren ezaugarri izango zen aireko tragediaren hitzaurrea (Díez Pomares, 2016: 182).

Hain zuzen ere, Gerra Zibilean izan zen, Txinaz gain, lehen aldiz bonbardaketak erretagordiaren aurka masiboki erabili ziren lehen aldia (Villarroya i Font, 2017: 31). Altxatuen bandoak azkar hornitu zuen abiazio garatu baten falta Alemania naziaren eta Italia faxistaren laguntzarekin. Hitlerrek eta Mussolinik espainiar lurretan esperimentazio zelai bikaina identifikatu zuten. Besteak beste, Kondor Legioaren eta Abiazio Legionarioaren bidez, kolpistek bonba-hegazkin garatuak izan zituzten.

Ikusiko dugunez, horrek isla goiztiarra eta erabakigarria izango zuen Irungo borroketan, non kolpistek Junkers Ju 52 germaniar eta Caproni Ca.101 italiarren interbentzioa izan zuten. Gainera, aire ofentsiba hau itsas bonbardaketekin ere konbinatu zen, kolpisten eskuko flota Kantabrikoarekin. Horrela, gune estrategikoak itotzeko aire-itsaso operazio konbinatuak entseatu zituzten.

Garapen zein laguntza teknologiko honekin guztiarekin, matxinatuen estrategiak jazarpen-kanpaina sistematiko bat ekarri zuen. Aparatu berriak jada ez ziren mugatzen helburu militar estrategikoak kolpatzera, atzeragordiako edozein hirigune zaurgarri bilakatu zen (Villarroya i Font, 2017: 27-28). Horrela, biztanleria zibilak "terrorezko bonbardaketa" batzuk jasan zituen, izua zabaltzeko diseinatuak, atzeguardia desmoralizatzeko eta amore ematera behartzeko (Díez Pomares, 2016: 183-184).

Guzti hau aipatzea garrantzitsua da Irungo bonbardaketen kasua ulertu ahal izateko. Izan ere, 1936ko udan jasandako bonbardaketak, hain zuzen, aireko gerra modernoa

sendotzeko eta eraso modu berriak esperimentatzeko testuinguru horretan gertatu ziren. Italiako eta alemaniako abiazioaren parte-hartzeak, su-bonben erabilerak edo biztanleria zibilari egindako presioak erakusten dute Irun dinamika horien parte izan zela goiz, gerora gerrako beste agertoki batzuetara zabalduko zirenak.

2.3 Bonbardaketen helburuak: militarrek, estrategikoak eta psikologikoak

Gerra Zibileko –eta Irungo– bonbardaketen logika ulertu ahal izateko, garrantzitsua da logika eta helburu ezberdinak izan zituztela ulertzea. Zentzu horretan, historiografia garaikideak banaketa kontzeptualak proposatu ditu operazioak bereizteko. Hala, Xabier Irujoren *Atlas de los bombardeos en Euskadi (1936-1937)* ikerketa aipatzea ezinbestekoa dugu atal honetan ere, banaketa hau egiten duen lanean (2021: 4-5):

1. *Bonbardaketa taktikoak*: berehalako interes militarra zuten helburuen aurkako erasoak lirateke hauek. Funtzio nagusi gisa aireko euskarri izatea zen lurreko infanteriari, bai eta distantzia laburreko interdikzio misioak gauzatzea. Hau da, tropak, lubaki lerroak, komunikazio zuzenak, ekipamendua suntsitzea, besteak beste. Mota hauetako ekintzetan, tamaina ertaineko bonba-hegazkinak erabiltzen ziren.
2. *Bonbardaketa estrategikoak*: bonbardaketa hauek lirateke lur edo itsasoko operazioez gain eginiko aire misioak. Hau da, helburua etsaiaren gaitasun produktiboa, logistikoa edota industrialak kolpatzea zen: biltegiak, portuak, fabrikak, aireportuak etab. Ekintza hauetan bai tamaina handiko bonbaketariak erabiltzen ziren.
3. *Terrorezko bonbardaketak edo psikologikoak*: aire eraso hauek etsaiaren moralak suntsitu eta, ondorioz, honen errendizioa helburu zuten. Balio sinboliko handia zuten eraso hauek. Historiografiak aipatu bezala, ezaugarri nagusiak intentsitatea, ezusteko izatea eta denboran luzatzea lirateke, bereziki eraginkorrak izanik hiri ireki edo babesgabeetan (Volkmar Ossa, 2023: 700).

Irujoren beraren datu estatistikoak jarraitzen baditugu (2021: 5), euskal lurretan egindako bonbardaketetako gehienak (%63,9) taktikoak lirateke, bai kolpistek zein errepublikanoek osagarri gisa erabili zituztelarik. Haatik, asimetria argi bat ageri da terrorezko bonbardaketak fokuan jarrita, %23,9a osatu zutenak. Hain zuzen, mota honetako 300 operaziotik 292 gauzatu zituen abiazio kolpistak.

Azaldutako banaketa analitiko hau jarraituz, informe honen 4. atalean identifikatu eta sailkatuko dira Irungo kasuan gertatutako bonbardaketak. Hala ere, gure txostenaren interes nagusia ez dira borroka-fronteko operazio militarrek, baizik eta herriguneari zuzenean eraso zieten erasoaldiak. Horregatik da hain garrantzitsua terrorezko bonbardaketen funtzioa azaldu eta ulertzea.

Hain zuzen ere, mota honetako bonbardaketak aurretik aipaturiko “gerra totalaren” teorien adierazpen praktikoak izan ziren. Estrategia hauek ezin dira banandu Douhet italiar jeneralaren ideietatik. Ikusi bezala, planteatzen zuen abiazioaren azken helburua ez zela helburu militar zehatzak suntsitzea, baizik eta etsaiaren erabateko hauste morala, erretagoardiaren sufrimenduaren bidez. Desmoralizazio hori lortzeko estrategia hirigune trinko, hauskor zein babesgabeen aurkako erasoak egitea zen, populazio zibila amesgaizto horren eszenatokian jarritz. Hortaz, Gerra Zibileko bonbardaketak planifikatutako tresna izan ziren, nolabait ere, prebentziozkoak. Francok bere aliatuek eremu errepublikanoetan egin zituzten erabateko gerraren esperimentuak aprobetxatu zituen, «gizabanakoen talde zehatzak suntsitzera» bideratutako «indarkeria selektibo» hori indartu eta airetik zabaltzeko (Volkmar Ossa, 2023:707).

Zergatik, hortaz, selektiboa eta prebentziozkoa? Zientzia politikoaren ikuspegitik, indarkeria horrek zigor prebentiboko gisa funtzionatzen zuen (Herreros y Criado, 2009: 432-434). 1936ko estatu-kolpeak babes totala izan ez zuenez, matxinatutako militarrek ez ziren ziur sentituko okupatzen ari ziren lurraldeetako kontrolaren inguruan. Biztanleriaren matxinada bat saihesteko, beste errepresio modu batzuen artean, bonbardaketak erabili zituzten arriskutsutzat zituzten tokiak erasotzeko. Biolentzia prebentibo honen gehiena –bonbardaketak barne– ezkerreko oinarri sendoa zuten edota errefuxiatu asko pilatzen zuten herri/hirietan egin ziren (Herreros & Criado, 2009: 423). Izua zerutik zabaltzearen helburua gizarte zibila lehorreko tropak sartu aurretik desagitea zen. Hain zuzen ere, terrorearen erabilera pilare bat izan zen altxamenduaren egunetik beretik. Hauek izan ziren uztailaren 19ko Molaren hitzak: «Izua zabaldu behar da [...] nagusitasun sentsazioa eman behar da, guk bezala pentsatzen ez duten guztiak eskrupulurik eta zalantzarik gabe desagerraraziz»¹.

Azkenik, aipatu beharko genuke ikusitako aire-terrore hau guztia –bai eta beste motatako bonbardaketak ere– kolpisten alderdiak guztiz zentralizatua zuela. Etsaiaren

¹ Mola, E. (1936, uztailak 19). *Instrucción reservada n.º 5*. Archivo General Militar de Ávila, Fondo Guerra Civil

desmoralizazioa gerraren estrategiaren parte izan zen, eta Frankok hirien bonbardaketak “betebehar patriotiko” bezala ulertzen zituen (Schüler-Springorum, 2009: 128). Hortaz, kolpisten bonbardaketa operazioak Frankoren Salamancako kuartelek agintzen ziren. Irujok (2021) adierazi bezala, agindu horretan herri/hiri bat egun zehatz batean bonbardatzea agindu zitekeen, baina baita aire-unitate desberdinek leku hori egun berean hainbat aldiz bonbardatzea. Kuartel nagusitik agintzen ziren, hortaz, bonbardaketa guztiak. Beraz, testuinguru honetan guztian kokatu behar dira Irunek 1936ko udan jasandako bonbardaketak.

2.4 Bonbardaketak, biztanleria zibila eta hiri-suntsiketa

Aurretiko guztia kontuan hartuta, ulertu beharko genuke zentro urbanoen bonbardaketak ezin direla ulertu bigarren mailako efektu gisa, edota albo-kalte gisa. Kontrara, populazio zibilaren habitata erasotzea estrategia militarren eta errepresio-politikaren dimentsio estruktural eta planifikatua izan zen. Indarkeria gauzatzeko modu hau gatazka osoan zehar errepikatu zen. Hilabete batzuk geroago Durango edota Gernika bezalako hirietan modu oso tragikoan gertatu zena ez zen anomalia bat izan Iparraldeko frontean.

Horregatik, hirien suntsitzea –ez soilik fisikoki– helburu estrategikoa zela ulertzea garrantzitsua da Irunen kasua aztertzeko. Mugako herriak jasan zuen jazarpena itsaso, aire eta lurrekoa izan zen. Bonbardaketak hirigunea ito eta desegiteko egindako kanpainaren parte izan ziren. Hortaz, Irunen erorketaren atariko hondamendi-paisaia ere, denboran jarraitutako strategiaren ondorio izan zen. Horregatik, Irungo suntsipenaren kontakizun tradizionalak –irailaren 4ko suteetan ardaztua– ezin du ezkutatzen jarraitu funtsezko errealitate bat. Sute zehatz horiek, jatorrian sartu gabe, asteak zigortua eta suntsitua izate zeramatzan hiri bati eragin zioten.

2.5 Iparraldeko frontea eta bonbardaketak Euskal Herrian

Bonbardaketek euskal lurretan izandako inpaktua ulertu ahal izateko, gerora Irungo kasua ulertzeko, ezinbestekoa da aipatzea Iparraldeko Frontea deiturikoak 36ko udatik hartu zuen garrantzia estrategikoa. Gipuzkoa, Bizkaia, Kantabria eta Asturiasek osaturiko lerroa geografikoki isolatuta zegoen gainontzeko lur errepublikanoekin. Hortaz, kolpistek

kontrolaturiko lurrez inguratua, eta itsasoz mugatua iparraldean, zonalde hau eszenatoki militar “autonomo” bat eta, aldi berean, “satarte” bat bilakatu zen.

Testuinguru geografiko honetan, aire espazioaren kontrola kanpaina militarren alderdi erabakigarri bat bilakatu zen. Izan ere, kolpistek identifikatu zuten Iparraldea hartzeak lehentasuna zuela. Helburua ez zen lurraldea bera hartzea. Batetik, industria, meatzaritza eta siderurgia indartsua hartzea, gerra luze bati eusteko ezinbesteko baliabideak. Bestalde, eta askoz ere urgenteagoa: Frantziaren eta Gipuzkoaren arteko nazioarteko muga modu nabarmenean ixtea. Hor kokatzen da, egin-eginean ere, Irunen garrantzia estrategikoa. Iparraldeko lurren orografia, ordea, ez zen erraza. Horregatik izan zuen paper garrantzitsua abiazio frankistak, alemaniar eta italiarraren laguntzarekin.

Irujoren *Atlas de los bombardeos en Euskadi (1936-1937)* ikerlanean azaltzen den modura, bonbardaketen estrategia goiz eta intentsiboki probatu zen Gipuzkoako lurraldean gerraren lehen aste eta hiletan. Hain zuzen, 1936ko udako kanpainan –uztaila-iraila– airezko operazio gehienak Gipuzkoan kontzentratu ziren. Hau zetorren Nafarroako zutabeek muga tapiatu eta lurraldea isolatzeko zuten premia larria zela eta. Hasierako egoera honetan, beraz, mugako herriak zein nukleo urbano nagusiak aireko erasoen jomuga bilakatu ziren. Durango edo Gernika bezalako herrien aurkako eraso sistematikoetan hilabete batzuk geroago bere krudeltasun handiena eta mediatikoena lortuko zuen dinamika global hau Gipuzkoako sarbideetan estreinatu eta zehaztu zen.

3. Irungo kanpaina militarra Gipuzkoako ofentsibaren testuinguruan

Penintsularen iparraldea hartzeko Mola jeneralaren plana zapuztuta geratu zen, besteak beste, Gipuzkoa Errepublikari leial izan zitzaiolako. Hain zuzen, Gipuzkoaren kontrolak garrantzia geopolitiko handia zuen: bere kontrolak Frantziarekiko komunikazio zuzena bermatzen zuen eta, hortaz, baita hornigaien merkatu internazionalarekin ere. Horrexegatik, kolpisten bandoarentzat, sarrera hau neutralizatzea berehalako eginkizuna zen Errepublikaren hornigai-fluxua (armak batez ere) mozteko. Eta ez hori bakarrik, baita Erdigune, Levante eta Kataluniako zona leialekiko zonaldeekin komunikazioa moztea zuten helburu. Horregatik, eta Donostiako egoera ikusita, Molak errekurtsioak Irun hartzera bideratu zituen, Iparraldeko Fronteko lehen mailako helburu estrategiko bilakatu zelarik (Mayoral Guiu, 2013: 55). Preseski, Irungo erasoaldia iparraldeko kanpainako gertaera erabakigarrienetako bat izan zen Gipuzkoan.

Irunen defentsari dagokionez, altxamenduaren egunean bertan Gerra Batzar lokala sortu zen, Karabineroen teniente zen Antonio Ortegak gidatua. Uztailaren 20an bertan, Ortegak lehen milizien zabaltzea agindu zuen, Bera, Aiako Harriak edota Piloketa bezalako tokietara, nahitaez igaro beharreko puntuak baitziren hauek. Horrela, Nafarroako bideak itxi nahi zituen. Gauzak horrela, uztailearen amaierarako irungo defentsa lerroa ezarria gelditu zen Erlaitzetik Pikoketara, zein Endarlatsatik San Martzialera, miliziek zein minetari asturiarrek ere indartua (Etxepare & García Nieto, 2018: 185-186).

Zehaztu behar dugu, Irungo kanpainan bonbardaketak –airez, itsasoz zein lurrez eginikoak– konstanteak eta erabakigarriak izan zirela herria hartzeko. Atal honetan, ordea, ez dugu bonbardaketa horien azterketan sakonduko, hurrengo atalean murgilduko baikara gai horretan. Horregatik, atal honen helburua mugimendu-gerra berreraikitzea da, era labur batean, lurreko zutabeak taktikoki nola hedatu eta Irunera nola iritsi ziren testuinguratzeko.

Era horretan, Mola jeneralak probintzia hartzeko sorturiko plana Iruñetik abiatu ziren hiru zutabetan oinarritu zen: Beorlegi, Cayuela eta Latorrek gidatuak. Talde horiek Guardia Zibilaren indarrek, erreketek karlistek eta falangistek osatutako osaera heterogeneoa zuten (Barruso, 2006; Urgoitia, 2001b:17). Beorlegiren zutabea izan zen Bidasoako ofentsibara bideratu zena, eta hasiera batean atzeratu egin zen Irunera hurbiltzen, Endarlazako zubia suntsitu baitzuten errepublikanoek. Abuztuko hilabete osoan zehar, Beorlegiren tropek haien lerroa kontsolidatzea lortu zuten Bidasoa Behean, Irun inguruan itxitura bat ezarriz.

Hain zuzen, abuztuaren 3tik 10era bitartean, Arkale, Endarlaza eta Aiako Harrietako sarbideak garbitzeko operazioak egin zizuzten, Lesaka-Oiartzun konboiaren segurtasuna bermatzeko (Urgoitia, 2001a: 370). Ondoren, abuztuaren 11n hasiko dute Errepublikaren lehen defentsa lerroaren aurkako erasoaldia, Pikoketa – Erlaitz – Gorostiaga – Pagogaña – Endarlaza ardatzaren inguruan antolatuta. Bidasoako sistema errepublikanoen lehen gerriko defentsiboa zen. Pikoketa hartu ondoren, Los Arcosen indarrak Gorostiagarantz eta Erlaitz ingurura joan ziren, García Valiñoren zutabea Aiako Harrien sektorean aritzen zen bitartean. Inflexio-puntua abuztuaren 15ean gertatu zen, Erlaitzen okupazioarekin, haranerako sarbidea menderatzen zuen funtsezko posizioa baitzen (Urgoitia, 2001a: 374). Egun berean, indar errepublikanoak Pagogañatik erretiratu ziren, isolatuta geratzeko arriskuagatik, eta horrek lehen defentsa sistema kolapsatzea eragin zuen (Barruso, 1996).

Ondoren, abuztuaren 16-18a bitartean, Beorlegiren indarrek ofentsibaren prestakuntzan aritu ziren. Urgoitiak itsas bonbardaketen gero eta garrantzi handiagoa

nabarmetzen du, *Espainia* korazatuarekin eta *Cervera* barkuarekin errepublikanoen posizioak bonbardatuz kostaldetik, bonbardaketen areagotze bat ere emango zelarik (Urgoitia, 2001: 375). Aldi berean, errepublikanoak Irundik hurbilago zegoen bigarren defentsa-lerro bat ezartzen hasi ziren, Zubelzu, Puntxa eta San Martzialen inguruan.

Abuztuaren 19an hasi zen Irun hartzeko kanpainaren fase erabakigarria. Hain zuzen ere, Abuztuaren amaieran, kolpistek behin betiko eraso planifikatu zuten: hirigunean sartzen saiatu aurretik, ezinbestekoa zen mendietako defentsa-gerrikoa garaitzea. Horregatik, lehentasunezko helburu gisa Behobia, San Martzial mendia eta Bentak auzoa finkatu zituzten (Urgoitia, 2001b: 35-36).

Herri milizien eta boluntarioen erresistentziari aurre egiteko, Nafarroako zutabeen multzoa nabarmen indartu zuten tropa profesionalekin. Molak Legioaren Bigarren Bandera bidaltzea agindu zuen, baita gurdi blindatuak eta artilleria astunaren hedapen ikaragarria ere (Barruso, 1996; Urgoitia, 2001b: 17, 35). Lurreko gailu horri eraso sistematiko bat gehitu zitzaion, airetik eta itsasotik konbinatua; matxinatutako hegazkinak eta kostaldean jarritako flota, hurrengo atalean azalduko duguna.

San Martzial mendiko eraso orokorra irailaren 1ean hasi zen. Karlisten lehen erasoak geratu zuten errepublikanoek, erasotzaileek beren artilleriarekin koordinatzean izandako akatsen ondorioz (Urgoitia, 2001b: 17-18). Hala ere, erasoaldia irailaren 2an hasi zen berriro, bortizki. Batetik, artilleria suntsitzaile batek defentsarako fortifikazioak birrindu zituen. Bestetik, matxinatuek San Martzialeko baseliza hartzea lortu zuten egun hartan (Barruso, 1996; Urgoitia, 2001b: 18-19). Kokaleku klabe hau gabe, eta jaurtigaien eraso amaigabe baten pean, miliziak hirigunerantz atzera egiten hasi ziren, hirigunerantz, erresistentzia kalez kale antolatzeko (Urgoitia, 2001a: 374; Urgoitia, 2001b: 38). Egun hauetan, hortaz, hirigunearekiko gerra totalaren fase batean sartuko da, ikusiko dugunez, bonbardaketak erabat intentsifikatuz besteak beste. Hain zuzen ere, irailaren 3an kolpisten indarrak Behobiako postuan jarriko dute presioa. Paraleloki, bonbardaketek eraikin zibiletan kalte larriak eragiten hasi ziren bitartean.

Irailaren 4ko goizeko 06:00etan, Behobia hartu zuten azkenean, eta Frantziarako lehen urratsa itxiz (Urgoitia, 2001b: 21; Palumbo, 2016:83; Barruso, 1996). Gaua heltzean, hiriko defentsak oso ahulduta zeuden, eta borrokan jarraituko zuten indar errepublikano gehienak Donostiaruntz erretiratu ziren. Ordurako, Irungo hiria suntsipen material orokortu eta suteek suntsitutako prozesu batean murgilduta zegoen. Azkenik, irailaren 5eko lehen

orduetan hartuko dute Irun frankistek. Foncuberta tenientea buru zuen talde batek kaleak hutsik zeudela egiaztatu zuen, eta Udaletxea erresistentziarik gabe hartu zuen (Urgoitia, 2001b: 38). Irailaren 5eko goizeko 11:00etan, matxinatutako tropek Santiagoko Nazioarteko Zubia hartu zuten, hiriaren behin betiko erorketa gertatuz.

4. Irungo bonbardaketak

Aurreko atalean laburki deskribatu dugu tropa kolpistek Irun hartu zuten arterako prozesu militarra, bonbardaketen aferan sartu gabe. Hori izango da, egin-eginean ere, atal honen eta baita informearen muina. Izan ere, kolpistek Irungo bataila delakoan zehar egindako aurrerapena ezin da inolaz ulertu, bonbardaketen bidez egiten zen eraso sistematikoa kontuan hartu gabe. Irunek jasandako bonbardaketa ezberdinak ez ziren bigarren mailako elementuak izan, hiriaren kolapso bai material zein humanoa azkartu eta eragin zuten elementuak izan ziren. Informe honetan ez gara frontean gauzatutako bonbardaketetan ardaztuko. Azken batean, helburua bonbardaketek –izan airez, lurrez edo itsasoz egindakoek– hiriaren suntsipen fisikoan eta hiritarrengan sorturiko ondorioetan sakontzea da.

Aurreko ataletan esan bezala, Irungo bonbardaketei ez zaie apenas atentziorik jarri esparru akademikoan, Irujoren atlasa (2021) eta hainbat lanetan eginiko aipamenak kenduta. Kontrara, baieztatu daiteke Irun, inguruko beste herri batzuk bezala, laborategi bat izan zela bonbardaketei dagokienean: bai italiar zein alemaniar abiazioaren erabileragatik, baina baita ere, suzko bonben erabileragatik ere. Hain zuzen, zonalde honetan lehen aldiz entseatu zituzten logika berriak, aurreko ataletan azaldu ditugun terrorezkoak. Hauek, errepikatu eta biderkatu egin ziren egun gutxitara —eta aldi berean— Madrilén, eta Durango zein Gernikan ostera. Horregatik, besteak beste, *Junker* alemanen edota *Caproni* italiarren erabilerak terrorezko taktikak gauzatzeko balio izan zuten. Airezko erasoez gain, bonbardaketak artilleriaren zein itsasontzien bidez ere iritsi ziren bigarren maila batean.

Egunez eguneko xehakapenean azalduko denez, hirian eginiko bonbardaketek bi helburu zituzten: trenbideen, lantegien eta zubien aurkako bonbardaketa estrategikoa, hornidurak edota Frantziarekiko lotura mozteko. Bestetik, erdiguneko kaleen eta errefuxiatuz betetako plazen aurkako terrorezko bonbardaketa, erabateko desmoralizazioa bilatzeko. Dena dela, argitu beharko genuke halako hiri kontzentratu batean, banaketa teoriko hauek ez direla zurrnak errealitatean. Hau da, teorian “estrategikoak” diren bonbardaketak –trenbide, zubi edota fabriketara zuzenduak– praktikan terrore-bonbardaketa gisa funtzionatzen dutela aldi berean. Irundar batentzat helburu militarren bereizketa teorikorik ez zegoen: bonba batek ez

zuen bere asmoaren berri ematen hirigunean erortzen ari zen bitartean. Eta kolpistek ere, noski, gerra-arma psikologiko kontziente gisa erabili zuten “ziurgabetasun” hori.

Hortaz, hiriguneak eta hiritarrek 1936ko abuztua eta irailaren artean jasandako bonbardaketak egunez egun berreraikitzeke, dokumentazio ezberdina gurutzatuko dugu. Honetan sartu aurretik, eta gero hausnartuko dugunez, hamarkadetan zehar Irungo suntsipenaren narratiba nagusiak iri-hondamendiaren erantzukizun osoa 1936ko irailaren 4an erretiratutako miliziek –edota anarkistek– eragindako suteetan kontzentratu du. Errelato erredukzionista onek hiriaren suntsipena bat-bateko gertakizun gisa aurkezten zuen: izan “lur errearen” estrategia gisa edota “gertakizun anarkiko” bezala. Bertsio bat edo beste, udalerrri bat kezko hiri bilakatuko zen ordu batzuetan. Aipatu dugu txostenaren helburua ez dela suterik gertatu zenik ezeztatzea. Baina bonbardaketez ari garenean, txosten honetan bildutako dokumentazioak modu argian gezurtatzen du *tabula rasa* baten mitoa. Dokumentazio ezberdinak erakusten du nola Irun ez zen irailaren 4an suntsitzen hasi. Ordurako, hondamendi material zein sozial baten prozesuan zegoen.

4.1 Euskarri dokumentala

Irunek jasandako bonbardaketen berreraikitzea egin aurretik, gertakari hauek gorde eta islatzen dituzten dokumentazioaren azalpen laburra gauzatu nahiko genuke. Izan ere, “irailaren 4ko sutearen” inguruko errelatoaz haratago, askotariko iturriek suntsipenaren erradiografia ezberdin eta osatuago bat sortzeko aukera ematen dute. Hain zuzen, Irunen suntsipenaren bestelako sekuentzia bat eraikitzeke bitartekoak dira. Informe hau indartzen dute bi erregistro operatibo osagarrik: indar erasotzailearen zein intelijentzia “neutral” baten uneko dokumentazioak. Erregistro horiek, analisi kronologikoan frogatuko den bezala, bat datoz data, ordu eta helburuetan bai uneko prentsaren kronikekin eta gainerako dokumentu funtsekin.

Hortaz, lehenik, kolpisten abiazioaren operazio-egunkaria genuke. Hau da, erregistro-liburuak eta Logroñoeko aerodromotik lan egiten zuten aireko indar matxinoen eskuizkribu originalak (Maximiliano Pardo Gallo pilotuarenak, kasu honetan)². Proba gisa duen pisua funtsezkoa da, Irun bonbardatu zuten hegazkin batzuen erregistro tekniko zein barne-mailakoa osatzen duelako. Hain zuzen: datak, aireratze-orduak, misioen iraupena eta

² ARCHIVO HISTÓRICO DEL EJÉRCITO DEL AIRE. Fondo Jesús Salas Larrazabal. Signatura: A 13849. Diarios de vuelo (Maximiliano Pardo Gallo).

bonbardaketen helburuak. Horri esker argi islatzen da kolpisten kanpainaren baitan, aire-gerra trintxeretatik zabaldu eta hiria eta hiritarrak erasotzera bideratuko dutela.

Bigarrenik, eta Irun erasotu zuten hegazkinen erregistroa ere izaki, inteligentzia britaniarrak interzeptatu eta deszifratutako dokumentuak leudeke, Keweko *National Archives*-ekoak. Aireko Sekzioak Zerbitzu Britainiarretako Ministerioei teletipo bidez helarazitako txostenen kopiak biltzen ditu³. Txosten horiek Italiako Abiazio Faxistaren jardueretan zentratzen dira, gure kasurako, Gerra Zibilean egindako operazioetan. Italiako indarrei atzemandako mezuen deszifraketan zuzenean oinarritutako dokumentuak dira. Corpusak barne hartzen ditu etsaien mezuen hitzez-hitzezko itzulpenak zein analista britaniarrek egindako parafrasiak. Funtsezkoak dira txosten honetarako, izan ere, zehatz-mehatz deskribatzen dituzte aire-operazioak, hegaldiak, istripuak, hedapenak, hegazkinen eta tripulazioen prestaketa egoera, erregaiaren eguneroko egoera, eta jaurtitako bonba zehatzak eta aerodromoen datuak (Logroñokoa, esaterako; Irun bonbardatzen zen bertatik). Hirugarren potentzia batek ezkutuan deszifratutako barne-komunikazio militarrek direnez, eta erasoen erradiografia egiteko oso baliagarriak dira.

Badaude, era berean, behatzaile internazionalak idatzitako dokumentuak, esaterako, italiar behatzaile baten txosten politiko-militar sekretua, frantsesei zuzendua⁴. Froga-balio handikoa da, datu kuantitatiboak eta kualitatiboak ematen ditu Italiaren eta Alemaniaren esku-hartzeari buruz eta, batez ere, Molaren agintearen estrategia sistematikoa azaleratzen du nazioarteko prentsa zentsuratu, atxilotu eta exekutatzeke, aurrerago zehaztuko dugunez.

Erabiliko diren beste dokumentazio batzuetan, Jose Maria Doussinguek Irungo hartzeari buruz idatzitako txostena esaterako, kolpistek suntsipena nola deskribatu zuten ikusi dezakegu. Era berean, Salamancako Prentsa eta Propagandarako Estatuaren Ordezkaritzaren eta Erresuma Batuko ordezkaritza ofiziosoko agenteen arteko mezuak, adibidez. Erresuma Batuko prentsan kontra-informazio kanpaina bat aktibatzeke jarraibideak jasotzen ditu espedienteak, Irungo osteko errelatoarekin guztiz lotuta⁵.

Bonbardaketen nondik norakoak jasotzen dituen iturri garrantzitsuenetako bat garaiko prentsa izango da, aldi berean. Hau funtsezko zutabea da frogatzeko Irungo suntsipena ez

³ NATIONAL ARCHIVES, Kew. Kew AIR & HW 21. Aviación italiana (agosto-septiembre 1936)

⁴ AGA, 12-03197-00013. Reflexiones sobre la caída de Irun.

⁵ AGA. Embajada de España en Londres. P-000953-2022 eta 54-06856-00004.

zela irailaren 4an ustekabeko gertaera isolatu batera mugatu, baizik eta asteetan zehar luzatutako gertakarien prozesu sistematiko baten amaiera izan zela. Artxiboa hiru bloke nagusitan bana dezakegu: prentsa lokala edota gertukoa, mugako prentsa frantsesa eta, azkenik, prentsa transatlantikoa edo internazionala.

Prentsa lokalaren bitartez, Gipuzkoako Gerra Komisariako eta milizietako parteak bertatik bertara jasotzen dituzte, eguneroko erregistro gisa jarduten dute. Zentzu honetan, aipatzekoa da –dokumentazio guztiarekin bezala baina– kontrastatu edota interpretatu beharreko kronikak direla askotan. Batez ere, *Frente Popular* aldizkaria bezalako kasuetan. Izan ere, sarritan errelato baikorregi bat idazten zen, ziurrenik, morala altu mantentzeko premiarekin. Irunen kasuan, hain bataila garrantzitsua izanda, errepublikanoek jasandako erasoak leuntzen dira, baita bonbardaketen ondorio suntsigarriei arreta txikia jarri ere. Suntsiketak, suteak eta mehatxuak kontrolpeko kontingentzia txiki gisa agertzen ziren askotan.

Horregatik da premiazkoa mugaz gaindiko prentsa ere behatzea. Kronika horiek ikuspegi eta interes informatibo erabat desberdinetatik aurkezten eta aztertzen dituzte bonbardaketak. Frantziako prentsa oinarritzkoa da, muga ondoko herrietatik operatzen baitzuten, eta askok Irungo hirigunean bertan berriemaileak zituzten, Havas Agentziakoak adibidez. Berdina jazotzen da prentsa internazional edo transatlantikoarekin: Estatu Batuetakoak, Australiakoak edota eremu anglofonoaatakoak osatzen dute korpus hau. Guztira, 80 bat berrik osatzen dute landutako hemerrotekak. Honek, aurretik esan bezala, osatu egiten du hegaldi militarrei loturiko dokumentuen narrazioarekin.

Azkenik, bonbardaketei ikuspegi materiala, bisuala eta humanoa ematen dieten erregistro grafiko eta testimoniala edukiko genuke. Esaterako, pasa den urtean argitaratu atera zen Hearst Metrotone News-en metrajea: William Randolph Hearst estatubatuarraren enpresak zuri-beltzean egindako filmazio multzoa. pelikularekin. Filmazio horiek esplizituki erakusten dituzte bonbardaketa eta erasoek Irunen izan zituzten ondorio materialak. Ebidentzia grafiko horrek balioa hartzen du, garai hartako prentsaren kroniken bidez aurrez identifikatutako bonbardatutako/suntsitutako lekuekin bat etortzean, esate baterako. Honi batzen zaio erregistro fotografikoa, bai egunean eguneko prentsan publikatutakoa. Baina baita ere, erreportari lokalek eta korrespontsal grafikoek hartutako funtsak ere.

Era berean, bonbardaketak aipatzen dituzten hainbat testigantza ere leudeke. Aurrez erregistratutako ahozko memoriaren artxiboetan eta bildumetan aurkitutako erreferentziak

dira. Eta erregistro grafikoa osatzeko, Irungo bonbardaketa islatu zuten bi irundar haurren marrazkiak, Frantzian erbesteratuta zeudenenak. Azkenik, lehen mailako iturri eta dokumentuez gain, orain arte idatzitako bibliografia multzoa genuke, azpimarragarriena, aurrez aipaturiko X. Irujoren *Atlas de Bombardeos en Euskadi (1936-1937)* izaki. Lan hori oinarritzko zutabea da txosten honetan, bai euskal lurzoruan egindako bonbardaketen datu estatistiko eta tipologiko orokorrak finkatzeko, bai zeharka lehen eskuko iturri batzuetara iristeko.

4.2 Irungo bonbardaketak: 1936ko abuztua eta iraila

1936ko uztaila eta iraila bitartean Irunek jasandako bonbardaketen berreraikitzea egiteko, hauek kanpaina militarren bigarren mailako alor gisa ez ulertzea beharrezkoa da. Teorian oinarritu den bezala, aietik, itsasontzitik eta artilleriatik hiriaren aurka egindako erasoak alderdi matxinatuak probatutako gerra totalaren eta terrorearen estrategiaren dimentsio planifikatu eta sistematikoa izan zen. Hain zuzen ere, Irungo bonbardaketen prozesua, gainerako alorretan bezala, apurka-apurka itotzekoa izan zen.

“Irungo Bataila” deiturikoa hasi baino lehen jada, abuztuaren hasieran, Irungo hiriak berak lehen bonbardaketa jasan zuen. Izan ere, bonbardaketek, funtzio taktikotik haratago, hasieratik hasi ziren plano hau gaingitzen, hiria suntsitu eta biztanleria zibila beldurtzeko formulak probatzeko. Hain zuzen ere, **abuztuaren 9an**, dinamika honen lehen adibidea erregistratu zen. Xabier Irujok (2021), bere atlasean, Enrique Álvarez Cadórniga kapitainaren jatorrizko hegaldi-egunkaria baliatu zuen. Aurretik Bilbo bonbardatu ondoren, pilotua Logroñoko aerodromora itzuli zen, hegazkin berean —De Havilland Dh.89 Dragon Rapide— ondoren, Donostia eta Irun bonbardatzeko. Dragon Rapide-a, bidaiarientzako linea komertzialetarako sorturiko hegazkin ingelesa zen, bimotorea, baina lehegailuak eramateko egokitua. Dena dela, egun honetako erasoak, aurrerako gertatuko zirenekin alderatuz, esan dezakegu aukerazko erasoaldi gisa funtzionatu zuen, aparatuen ekintza-eremua errentagarri bihurtzeko.

Hurrengo egunetan aire-estrategiaren benetako gogortze bat emango da Gipuzkoan, baita Irunen ere. Hain zuzen, hirian beran arrasto materiala uzten hasiko dena. **Abuztuaren 12an**, hiriaren aurkako beste erasoaldi bat erregistratzen da hurrengo eguneko *Frente Popular* egunkarian. Kronikaren arabera, hegazkin kolpistek, milizianoen erasoan aurrean, altuera azkar irabazi eta bonbardaketen zehaztasuna murriztu zuten. Horren ondorioz,

«granada gehienak landan erori ziren, inor bizi ez zen lekuetan»⁶. Hala ere, erasoak ez zen kaltegabea izan: «haietako batek bakarrik harrapatu zuen etxe bat, Irungo alondegiz zaharrekoa». Hau da, udalerriaren barruko azpiegitura zibil baten aurkako lehen inpaktu zuzena dokumentatzen da berri honetan. Hurrengo egunean, probintziako hiriburuan bonbardaketa bortitza burutu zuten hiru motorreko hegazkin italiarrek. Hau da lehen momentutik hartu zuten parte atzerriko potentzia faxistek Gipuzkoa hartzeko kanpainan erabiliko bonbardaketetan.


Oldarraldi masibo horren larritasunak, agintari errepublikanoek defentsa zibileko politika aldatzea eragin zuen. Arratsalde horretan, *Frente Popular* egunkarian argitaratu zen Gerra Komisariotzaren premiazko ohar ofizial bat, matxinoen hegazkinen «ekite kriminala» salatuz eta populazioari jarraibideak emanez⁷. Hau da: abiazioaren helburuen inguruan kokatutako etxebizitzak nahitaez ebakutzeko eta Errepublikaren esku zeuden gerra-presok eskuindarrek berehala okupatzeko, bonbardaketak gelditzen saiatzeko giza defentsa gisa erabili nahian. Hain zuzen ere, ohar hori ez zen soilik biztanleria zibilarentzako barne-jarraibide gisa pentsatu, esplizituki matxinoen alderdiari zuzendua zen, prentsaren bidez. Testuak berak argi eta garbi adierazten zuen “etsaiarengandik zuhurtziazko jardura bat lortzeko, matxinatuek ezagut dezaten, egunkari honek argitaratzen duen beharra ikusten da”. Garrantzitsua da ohar ofizial honen aipamena egitea, ostera, Irungo kasuan errepublikanoek erabiliko duten ezkutua izango delako eskuineko bahituak erabiltzea, bonbardaketak ekidin nahian.

Hurrengo egunean, abuztuaren 14ko *Fronte Popularrean* Gerra Komisariotzaren bando bat publikatuko da, abuztuaren 13an sinatutakoa: «Gerra bandoa bonbardaketetarako⁸». Bando horrek bonbardaketen aurrean herritarrek jarduteko lehen protokolo ofiziala ezarri zuen, hiru jarraibidetan oinarrituz: *El Pueblo Vasco* kazetaren sirenaren bidezko abisu akustikoa arautzea sotoetan konfinamendua agintzeko; beheko solairuetako jabeek beren sotoak jendearentzat gaitzeko eta irekitzeko betebeharra; eta zibilei erabat debekatzea hegazkinen aurka tiro egitea, antolatutako defentsen eraginkortasuna babesteko. Nahiz eta metodologikoki Donostiarako prestatu zuten, Irungo larrialdi-protokoloen egiturazko oinarria ere izango da.

⁶ *Frente Popular*, 1936-08-13.

⁷ *Frente Popular*, 1936-08-13.

⁸ *Frente Popular*, 1936-08-14.



Frente Popular, 1936-08-14

Abuztuaren 15ean, beste bonbardaketa bat erregistratzen du prentsa internazionalak: hala nola *Sunday Mail*, *Truth* eta *The Sun* australiarrek, hilaren 16ko edizioetan hitzez hitz jakinarazi zuten «Matxinoen hegazkinek Irun bonbardatu zuten, eta beste hegazkin batzuk ikusi zituzten Donostia gainean hegan»⁹. Egun honetan dokumentatutako alderdirik kritikoena, gerraren eragin psikologikoak larriagotu zituena, mugako hirien aurkako arma kimikoen mehatxua izan zen. *The Morning Bulletin* kazeta australiarrak, abuztuaren 16ko edizioan, kontingentzia horren larritasuna azaleratu zuen, matxinoen gas bonben erabilera azpimarratuz. Era berean, Irun eta Donostiako populazioari gas-maskarak banatu zaizkiela azaltzen du: «Gasezko maskarak eman zaizkie Donostiako eta Irungo herritarrei, matxinoek gas-bonbak baitituzte orain»¹⁰.

⁹ *Sunday Mail*, *Truth* eta *The Sun* egunkari australiarrak, 1936-08-16

¹⁰ *The Morning Bulletin*, 1936-08-16.

IRUM BOMBED

A message from Hendaye states that the fighting at San Sebastian and Irun continues with increased vehemence. Every house in Hendaye is shaken by the firing of big guns, and the crackle of machine guns is easily heard from the French side of the frontier.

Rebel aeroplanes bombed Irun, and other planes were seen flying over San Sebastian.

The rebels are making a supreme effort for victory, but the Government forces are putting up an equally determined resistance.

Truth (Sydney), 1936-08-16

Irunera bideratutako erasoek, behin baina gehiagotan gertatuko zenez, mugaz besteko herriak eragin zituzten. Hain zuzen, abuztuaren 16an, Biriatur, Irunera zuzendua egon zitekeen 3 bonba erori ziren *Fokker* batetik. Tokiko egunkarietan azaltzen denez, errepublikanoen aireko bateriek uxatutako hegazkin matxinatu batek bere karga mugako lurraldean erortzen utzi zuen. *New York Times* kazeta estatubatuarreko kronika batean ere, gertakaria nazioartean esplizituki kokatzen zuena: «Iparraldean, matxinoek hiru zutabe jaurti dituzte Irunen aurka, eta hegazkinetako batek, aireko erasoaldi batean, hiru bonba jaurti ditu Biriatur, mugaz bestaldean dagoen Frantziako herri batean»¹¹.

Abuztuaren erdialdetik aurrera, hortaz, gogortu egin ziren Irun inguruko erasoak, lurrez, itsasoz zein airez bidezko estrategia konbinatua gauzatuz. Hain zuzen, **abuztuaren 18 eta 19an** Irun inguruak bonbardatuko dira itsasoz, Kantauri itsasoan matxinatuek erabilitako bi unitate nagusiaren bidez. Batetik, *España* korazatua —*dreadnought* moldeko ontzi berregokitua, 305 mm-ko artilleria astuneko kanoiekin— eta *Almirante Cervera* kruzero arina —152 mm-ko tiro azkarreko bateria indartsua zuena—. Bi buke hauen erabilerak, zonaldeko fortifikazioen aurkako suzko eraso handiak eragin zituen. Hau abuztuaren 18ko

¹¹ *The New York Times*, 1936-08-17.

erasoan erregistratu zen. *Frente Popular* egunkariko tokiko kronikak jaso zutenenez, *España* eta *Cerverak* ladi berean eraso bortitza egin zuten probintziako defentsa-gerrikoaren aurka, eta «lehentasunezko arreta eskaini zieten Guadalupe, San Marcos, Txoritokieta, Mompas, Urgulleko bateriak eta hiriko zenbait guneri»

Prentsa internazionalak ere jaso zuen Irunen aurkako eraso hau: «Ilunpean aurrera eginez, Irundik 600 metrora dagoen harmailadi batean zehar, matxinoek izugarritzko erasoak egin zuten hiriaren aurka. Bederatzi mila soldadu ari dira borrokan, eta kanoi-ontziak hiria bonbardatzen»¹². Era berean, *The Mercury* eta *The Sydney Morning Herald* bezalako egunkariak bonbardaketa eta erasoaren eraginezko ihesaldi handiak dokumentatzen hasten dira. Hain zuzen ere, australiako informazio-lerro hauek egiaztatu zutenenez, «Ehunka errefuxiatu Frantziako muga zeharkatzen ari dira, eta horien artean izu-egoeran dauden emakume ugari daude». Familien exodo masibo horrek, nolabait, errefuxiatuen krisi bat hasi zuen Bidasoa Beherean, hurrengo egunetan handituko zena.

Hain justu, eraso hauen ondorioz –abuztuaren 18koa izan zen pizgarria– Gerra Komisariotzak hilaren 13ko Donostiako bonbardaketaren ondoren publikoki iragarri zuen oharra aktibatu zuen, aurrez aipatu duguna. Missbachen ikerketak dokumentatzen duen bezala (2024: 50), aste horretan bertan Claude Bowers enbaxadore estatubatuarrek gutun bat jaso zuen Hondarribiko alkatezatzatik, Guadalupen konfinatutako aristokrata espainiar batek idatzia. Bertan, Irungo Fronte Popularreko miliziek emandako ultimatum zorrotza adierazten zen: matxinoen bonbardaketen ondorioz hildako zibil bakoitzeko bost preso fusilatzeke mehatxu formala. Era berean, mehatxu horietan jada, presoaren artean Romanones kondea zegoela adierazten zen.

Horrela, nazioarteko garrantziko pertsona bat egoteak setioa lehen mailako krisi diplomatiko bihurtu zuen. Mayoral Guiuren (2013:213) hitzetan, Defentsa Batzordeak agintariaren atxiloteta bideratu zuen matxinatutako erasoaldia geldiarazteko. Jean Herbette enbaxadore frantsesaren zuzeneko esku-hartzea behartu zuen honek guztiak. Premiazko kudeaketak egin ondoren, Herbette Antonio Ortegararekin Gipuzkoako gobernadore zibilararekin elkartu zen. Nazioarteko presio horren ondorioz, Ortegak konpromisoa hartu zuen kondea arrisku-eremutik Aldundiaren Donostiako egoitzara eramateko agindu zuen. Maila

¹² *The Sydney Morning Herald*, 1936-08-20.

militarrean, ordea, ez zuen bonbardaketak gelditzeko balio izan maniobra honek. Itsasoko eta aireko bonbardaketek etengabe jarraitu zuten Donostian zein Irunen.

Egiazki, abuztuaren 20tik aurrera bonbardaketak intentsifikatu egin ziren bai Irunen eta baita Donostian ere. George L. Steer gerra kronikari ospetsuak erregistratu zuen intentsifikazio hau, 1936ko abuztuaren 20tik aurrera indar matxinoek egunero eta etengabe Donostia eta Irun inguruan bonbardaketa patroï bat ezarri zutela dokumentatuz: «[...]egun horretatik aurrera, Irun eta Donostia bonbardatu zituen, egun bat falta gabe eta bonba karga gero eta astunagoekin. Caproni 101 monoplane italiarrak ere San Martzial bonbardatzen hasi ziren» (Irujo, 2021: 28).

Caproni 101 monoplane italiar moderno horiek San Martzialen gotortutako posizioen aurka egin zuten eraso, eta horrek hirigunearen eta ebakuazio bideen gaineko terrorea areagotu zuen. **Abuztuaren 20an** bertan, Australiako *The Newcastle Sun* egunkariak jakinarazi zuenez, Irungo frontean zuzeneko borrokarik izan ez bazen ere, «matxinatuen bonba-hegazkin batek hainbat bonba jaurti zituen herrian eta Donostia eta Irun lotzen dituen errepedean»¹³. Hala ere, Irungo hirigunearen gaineko jazarpena gogortu egin zen gauean. The New York Times egunkariak abuztuaren 21eko edizioan argitaratutako AP agentziaren bulego baten arabera, abuztuaren 20ko gauean matxinatuen hegazkin trimotor batek gauez erasoaldi bat egin zuen hirigunean: «100 kiloko hiru bonba jaurti ditu gaur gauean matxinoen hegazkin trimotore batek Irungo erdigunean». New Yorkeko kazetak agerian utzi zuen bizirik atera ziren biztanleengan eragin psikologikoa izan zuela «populazioa izu-ikaraz zegoen».

Izuaren areagotze honen testigantza garbia islatzen da Irungo haur errefuxiatu batek eginiko marrazkian. *Children's Drawings Of The Spanish Civil War* (1986) obran berreskuratua (errefuxiatuen kolonietako haurren 153 marrazkiren bilduma, jatorrian 1986ko urria eta Abendua bitartean argitaratua). Pieza horien artean, Gloria Boada Irundar haurrak egindako marrazkia nabarmentzen da. Irungo 12 urteko haurra Baionako haur koloniar agraman zuten. Adingabeak berak eskuz idatzitako testuak zehatz-mehatz deskribatzen du bere marrazkia, adieraziz, Irungo bonbardaketek eragindako izuaren errutina:

«Eszena hau hegazkinak bonbardatzera iristen zirenean ikusi dut, eta haurrak eta emakumeak tunelerantz korrika joaten zirenean, hala egiten ez bazuten, beren etxeetan hiltzen zirelako. Gloria Boada (neska), 12 urte, Irungoa (Gipuzkoa), Baionako (Frantzia)

¹³ *The Newcastle Sun*, 1936-08-21

haur-kolonia». Ezkerreko haurrek modu desberdinean erreakzionatzen dute etsaien hegazkinen aurrean. Batek «Ai, ama !» oihukatzen du, beste batek «Sirenak eta kanpaiak !», eta hirugarrenak, berriz, «Zein ausartak». Emakumeak haurrarekin dio: «Tunelera». Eskua aurpegira eramanda, eskuineko emakumeak oihu egiten du: «Ai, nire etxea suntsitu dute !». Elizako ezkilak ere hitz egiten du, «puntulun» esaten duela.



Gloria Boadaren marrazkia. Collins, George R. & C. C. Collins. (1986) (eds).

Irungo bonbardaketen kronikara itzuliz, 1936ko **abuztuaren 22an**, larunbata, borroka berriz hasi ziren egunsentian. *Le Temps* egunkari frantsesak goizeko 5:00etatik fusileriako tiroketa gogorak erregistratu zituen Alunda eta La Pucha artean. Irungo hiriguenean eragin zuzena handik gutxira izan zen, goizeko 8:00etan. Erreketeeek San Martzialen ezker aldean jarritako artilleriako pieza batek su eman zion hiribilduari, eta *Le Temps*-ek jakinarazi zuen lau metraila-jaurtigai erori zirela M. Duchureau Frantziako kontsuletxeko agentearen egoitzaren inguruan¹⁴.

¹⁴ *Le Temps*, 1936-08-22.

Hurrengo egunean ere, **abuztuaren 23an**, bonbardaketak jasan zituen Irungo hiriak. Irun jazartzeko estrategia gogortu egin zen alderdi guztietatik aldi berean erasotzeko plan bat gauzatu. *Euzkadi* egunkariak jaso zuen horren garrantzia, lur eta itsasoko unitateek erabateko sinkronian jokatu zutela matxinoen abiazioarekin: «Zalantzarik gabe, itsasoko, lurreko eta aireko indar matxinatuen ekintza konbinatua zen»¹⁵.

Airezko erasoak goizeko 10:00etan gauzatu zen, eta lehentasunezko helburu gisa garraio azpiegiturak eta atzegoardiako logistika ezarri ziren. Frantziako *Le Temps*, *L'Humanité* eta *Le Peuple* egunkariak egun horretan bertan Hendaian zituzten bulegoetan jakinarazi zuten, matxinoen bi hegazkinak bueltara egon ziren Irunen gainean, dozena bat bomba inguruko karga bat askatu aurretik¹⁶. George L. Steer berriemaile britainiarraren gerra-kronikak aukera ematen dute zehazteko zerbitzu hau bi hegazkin trimotorrek gauzatu zutela. Steerrek garraio-sarearen aurka erabilitako jaurtigaia kalibrea zehaztu zuen, eta dokumentatu zuen ehun libra bomba jaurti zirela Irungo tren-geltokira (Irujo, 2021: 30)

Hortaz, esan bezala, abuztuaren 23ko bonbardaketan Irungo tren geltokiaren inguruan erori ziren jaurtigaia, makinaren biltegia zuzenean jo zuten eta kalte material handiak eragin zituzten trenbide-instalazioetan. Eraso honetan jaurtitako gainerako bonbak Ventas auzotik gertu erori ziren. Naiz eta bonbardaketa estrategiko bat izan, funtsean, hiriaren suntsipen materiala eragin zuen, bai eta biztanleen izu psikologikoa handitu ere.

L'Humanité-k argitaratutako informean, agente matxinatuak egun honetako erasoan lortu nahi zuen benetako lehentasun estrategikoa azaldu zuen, hitzez hitz honako hau zehaztuz: «Irun eskualdea airez edo itsasoz bonbardatzearen helburu nagusia Irun eta Pasaia artean kokatutako gasolina biltegiak dira»¹⁷. Helburu espezifiko hori aukeratzeak arrisku handiko estrategia bat mahaigaineratzen du: halako bonbekin erregai-deposituak astintzen saiatzeak sute izugarri bat eragin zezakeen.

Abuztuaren 24an bonbardaketen dinamikak bere horretan jarraitu zuen, kasu honetan, gainera italiar *Caproni* hegazkinen laguntzarekin. *Le Temps* egunkari frantsesean adierazi zenez, hirigunearen gaineko erasoaldia goizeko 9:00etan hasi zen, «lau hegazkin trimotorrek mugako hiriaren gainetik hegan egin zuten denbora luzez, eta 50 kiloko bederatzi

¹⁵ *Euzkadi*, 1936-08-25.

¹⁶ *Le Temps*, *L'Humanité* eta *Le Peuple*, 1936-08-24.

¹⁷ *L'Humanité*, 1936-08-24.

bonba jaurti zituzten geltokitik gertu, eta beste hiru Irundik San Martzialerako errepidean¹⁸» Hau da, berriro ere geltokia zen erasoaren helburuetako bat. *L'Humanité*-k, berriz, *Caproni* gisa identifikatu zituen hegazkin erasotzaileak: «matxinoen "Caproni" batzuek bonbak jaurti zituzten atzo goizean Irunen, San Martzial gotorlekutik gertu eta hiriaren erdialdean»¹⁹.



L'Humanité: 1936-08-25.

Italiar kolaborazioa aipatu dugula, bereziki argigarria da italiar behatzaile batek Irungo erorketaren inguruan idatzitakoa. Dokumentuaren arabera, Italiako abiazioko pilotuak Orbetelloko akrobata eskolatik zetozen, eta Atzerriko Legioan izena ematera behartzen zituzten. Caproni eta Savoia-Marchetti modeloak gidatzen zituzten, hilean 5.000 pezetako soldatarekin eta hegaldiko orduko 100 pezetako aparteko soldatarekin. Aldi berean, txostenak Iruñea «alemaniar kolonia» birtual gisa deskribatzen du, non germaniar irakasleek armamenturik modernoena kontrolatzen zuten, erreketak eta falangistak prusiar eran desfilarazten zituzten eta Siescher alemaniar hegazkin azkarren erabilera koordinatzen zuten, 400 km/h-ko abiadurara iristeko gai zirenak. Era berean, Irun hartzeko kanpaina nondik koordinatu zen argitzen du. Hain zuzen, Donibane Lohitzuneko «Nacho Enea» etxetik estalitako gerra eta propaganda makina oso bat, Los Arcoseko kondearen legez kanpoko zuzendaritzapean.²⁰

Irun hartzeko kanpaina gogortzen zihoan heinean, beraz, hala egin zuten ere hiriaren aurkako bonbardaketek. Egin-eginean ere, esan dezakegu **abuztuaren 25** ingurutik aurrera gertatuko direla bonbardaketa eta hauen ondoriozko suntsipen zein giza-mugimendu handienak. Xabier Irujoren (2021) lanean egun honetarako zehazten denez, hiru hegazkinek 20 bonba inguru bota zituzten hirigunean. *Frente Popular* egunkarian adierazi zenez, berriro

¹⁸ *Le Temps*, 1936-08-25.

¹⁹ *L'Humanité*: 1936-08-25.

²⁰ AGA, 12-03197-00013. Reflexiones sobre la caída de Irun.

ere matxinatuen helburua trenbide-sarera bideratu zen hein batean: «Beren helburuetako bat geltokiko deposituak ziren, eta horien gainean bonba asko bota zituzten, kalterik eragin gabe». Hala ere, egunkariaren esanetan jaurgailuak hiriaren beste toki batzuetan ere erori ziren, lau pertsona zaurituz²¹.


Egunkarietan ere, populazio zibilaren aurkako erasoak eta bonbardaketen zitalkeriaren inguruko aipamenak ez ziren falta. *Euzkadi* egunkarian salatu zen egun honetan kolpistak Oviedo eta Gipuzkoa gogor bonbardatzen ari zirela, «hiri irekiak ez errespetatzeko politika» salatuz, «kontuan hartu gabe zigorra borrokalariak ez diren pertsonen jasan dezaketela, hala nola emakumeek eta hurrek». Abuztuaren 25eko bonbardaketaren harira, gainera, atzerriko tripulazioen presentzia adierazi zuten, esanez, «etsaien aparatuetako bat trimotor handi bat zela, oso modernoa, beste herrialde bateko hegazkinlariek gidatua»²².

Prentsa internazionalen ere erregistratu zen egun honetako erasoak, kasu honetan, datu zehatzek guztiz bat egiten ez duten arren. *Calexico Chronicle* egunkari estatubatuarra. zehaztu zuen bonbardaketak erabat hautsi zuela eguneroko espazio publikoen segurtasuna, «jaurtigai bat merkatu plazan erori zen, zibilez beteta.» Era berean, azaldu zuten bonbek bulego-eraikin bati su eman ziotela, agerian utziz, eraso hauek dagoeneko sutea aktiboak eragiten ari zirela hirigunean²³. Albiste berdinean berriro egiten zaio erreferentzia errepublikanoek bonbardaketak gelditu nahian erabilitako hertsatze-estrategiari. Kasu honetan, kontatzen da autoritateek bost bahitu hilko zituztela agindu zela, bonbardaketek eragindako heriotza bakoitzeko.

²¹ *Frente Popular*, 1936-08-26.

²² *Euzkadi*, 1936-08-26.

²³ *Calexico Chronicle*, 1936-08-25.



Calexico Chronicle, 1936-08-25.

Abuztuaren 26an indar kolpistek erasoaldi handi bat hasi zuten lur, itsaso eta aireko baliabideak erabiliz eta, berriro ere, hirigunea bonbardatuz. Hiria pixkanaka jasaten ari zen degradazio materiala erreparatzeko, *Le Temps* egunkariaren adierazpenak behatu ditzakegu. Adierazi zutenez, «hiru hegazkin hiriaren gainetik hegan egin eta bonbak jaurti zituzten hainbat puntutan, bereziki Frantzia etorbidearen eta Kolon pasealekuaren inguruan». Bonbardaketez gain, era beran, kanoien erasoen ondorioak azaltzen dira: «Matxinoen kanoiek Irungo hiriaren aurka tiro egiten dute. Bi jaurtigai erori dira Frantzia etorbidean, bat lantegi baten ondoan eta bestea mugako postutik ehun bat metrora».

Halako erregistroek balio handia dute bonbardaketen ondorioak eta ondoren eraikiko den narratiba argitzeko. Esaterako, Frantzia etorbidean eta Kolon pasealekuan bonbek izandako inpaktua dokumentatzean, unean bertan, frogatua geratzen da eremu horiek jada eraisten ari zirela bonbardaketen edota erasoen ondorioz, sutearen egunera iritsi baino lehen. Horrek ez du esan nahi, oster, kale hauetako eraikin batzuk erre ez zituztenik. Pascual Marin argazkilariak, adibidez, hala deitu zion bere argazki-albumari: «Kolon pasealekuko, Arbelaiz jauregiko eta Irungo beste kale batzuetako etxebizitzak, tropa errepublikanoek erretiratzean suntsituak, lehenengo tropa nazionalek bonbardatu ondoren»²⁴.

²⁴ Kutxateka. *Viviendas del Paseo de Colón, Palacio de Arbelaiz y otras calles de Irun arrasadas por las tropas republicanas durante su retirada después de haber sido primeramente bombardeadas por las tropas nacionales*. Identif.: 38948527. Funtsa: Foto Marín

Hilaren 26ko erasora itzuliz, *L'Humanité*-k jakinarazi zuenez «Goizean, matxinoen hegazkinek Irungo eta Lezoko biztanleria zibila bonbardatu zuten, lehen herrian gizon bat eta bigarrenean hiru haur zaurituz»²⁵. Hain zuzen ere, *Frente Popular* egunkarian zehazten da Juan Ibarrondo txoferra izan zela Irunen zauritua. Gainera, bai egunkari honek zein *Euzkadi*-k bonba Udaletxeko plazan erori zela identifikatu zuten²⁶.

New York Times egunkari estatubatuarreko korrespontsalak datu adierazgarri bat ematen du egun honetako bonbardaketaren inguruan. Behobia eta Irun bonbardatu zituztela erregistratzeaz gain, adierazi zuen: «indar handiko lehergailuekin eta propaganda-liburuxkekin bonbardatu zituzten matxinoen hiru Caproni hegazkinek egunez». Aurrerago ere dokumentatuko da, hain zuzen, kolpistek mehatxuzko propaganda ere jauzi zutela bonbardaketa-hegazkinetatik Irungo hirigunera. Taktika honek, berriro ere mahaigaineratzen du nola matxinatuek populazioaren kemena gainditzea zuten helburu, terrorezko praktiken bidez²⁷.

1936ko **abuztuaren 27an**, osteguna, alderdi matxinatuak eraso berri eta indartsu bat abiarazi zuen Bidasoa Behereko frontean. Egun honetarako, Maximiliano Pardo Galloren hegaldi egunerokoa daukagu²⁸. Eskuizkribuak adierazten du Irungo sektorean ordubete eta berrogeita bost minutuko sartu-irtena egin zela. Zerbitzua, esplizituki «errekonozimendua eta bonbardaketa» gisa katalogatua, Breguet XIX (117. zk) batekin burutu zuen Francisco izeneko sarjentu batek.

Koaderno honetan erregistratutako operazioez gain, prentsan hiru motorreko hegazkinenak ere idatzi ziren. Batetik, *Le Temps* egunkari frantsesak erasoaren larritasuna neurtu zuen «Kalkuluen arabera, matxinatuek berrogei-berrogeita hamar bonba jaurti zituzten atzo Irunen». Parisko kazetak, gainera, funtsezko datu bat eman zuen bonbardaketen helburuen inguruan, eraikin publikoak azpimarratuz: «hegazkingileek eraikin publikoetara jotzen zuten bereziki». Bonbardaketen aurrean Irungo biztanleak sotoetara jeitsi zirela ere adierazten da, baina zauritu batzuk egon zirela²⁹. Prentsa lokalak ere aipatu zuen bonbardaketa hau, *El Pueblo Vasco*-k adibidez. Salatu zuenez, matxinoen hiru aparatuk

²⁵ *L'Humanité*, 1936-08-27.

²⁶ *Euzkadi* eta *Frente Popular*, 1936-08-27.

²⁷ *The New York Times*, 1936-08-27.

²⁸ ARCHIVO HISTÓRICO DEL EJÉRCITO DEL AIRE. Fondo Jesús Salas Larrazabal. Signatura: A 13849. *Diarios de vuelo (Maximiliano Pardo Gallo)*.

²⁹ *Le Temps*, 1936-08-28.

hamarnaka bonba bota zituzten bi ordu baino gehiagoko eraso batean, eta «biztanleria zibila desmoralizatu nahian agian, hiriguneak ere bonbardatu zituzten»³⁰.

Bonbardaketak eragindako suntsipen materialaz haratago, abuztuaren 27ko gertakari adierazgarria terrore psikologikoko estrategia bat gauzatzea izan zen. *Le Temps*-eko korrespontsalak zehatz-mehatz erregistratu zuenez, matxinatuen eskuadrillek bonbak jaurtitzeaz gain mehatxuzko panfletoak bota zituzten berriro ere. Oraingo honetan hauen edukia ere adierazten da:

«Hegazkin matxinoek panfletoak jaurti zituzten Irunen, eta defentsa-indarrei eta herritarrei ohartarazi zieten hiria 20:00ak baino lehen errenditu ezean suntsitu egingo zutela, Badajozekin egin zuten bezala».

Badajozeko sarraskiaren aipamen hau egitea —bi aste lehenago gertatua— adierazgarria da. Berresten du kolpisten aginteak estrategiaz erabili zutela aurretik eginiko sarraski baten izua, setiorako arma gisa.

Abuztuaren 28rako, berriro ere dauzkagu Maximiliano Pardoren hegaldi erregistroak. Hauek erasoaldiaren plangintza erakusten dute, zehaztuz, abiazio erregularrak zigor-misio bikoitza burutu zuela egunean zehar. Bi erasoaldi izan ziren, biak Frantzisko sarjentuak eginak, Breguet XIX (117. zk.) hegazkinarekin, berriro ere. Lehen zerbitzua, ordu bat eta hogeita hamabost minutukoa, San Martzial gotorlekuaren gaineko «errekonozimendu eta bonbardaketa» operazio zuzena izan zen. Arratsaldean, ordubete eta hogeita minutuko bigarren erasoaldia egin zuen. Bigarren bidaia horretan, «errekonozimendu eta bonbardaketa»-ren helburua Irungo tren-geltokia izan zen berriro ere, baita Lasarteko aerodromoa ere³¹.

Le Temps egunkariak jakinarazi zuen, era berean, Burgosetik zetozen hegazkinek Irun eta bere eskualdea zeharkatu zutela arratsalde amaieran, eta hogeita hamar bonba inguru bota zituztela. Fronteko bonbardaketez gain, hirigunean ere kokatzen ditu bonba jaurtiketa batzuk. Berriemaileak dokumentatu zuenez, matxinatuak herriko kasinoa suntsitzen saiatu ziren, munizio-biltegi bihurtu zuten susmopean. Hala ere, berriro ere bizileku inguruetan erori ziren bonbak. Parisko kazetak idatzi zuenez, «beste bonba batek etxebizitza bat jo zuen Kolon

³⁰ *El Pueblo Vasco*, 1936-08-28.

³¹ ARCHIVO HISTÓRICO DEL EJÉRCITO DEL AIRE. Fondo Jesús Salas Larrazabal. Signatura: A 13849. *Diarios de vuelo (Maximiliano Pardo Gallo)*.

pasealekuan, Irunen, eta teilatuan kalteak eragin zituen»³². Hortaz, berriro ere bonbardaketek Kolon pasealekuko etxeak kaltetu zituzten.

Bestalde, «mendeku zital bat» izenburupean, *Fronte Popular* egunkariak salatu zuen matxinoek hiria eta biztanleria erasotzean edukitzen ari ziren insistentzia, baita artilleriaren aldetik ere: «Helburu militar hutsak hausteari utzi zion, eta bere kanoien jomuga altxatuz, metraila kopuru handia jaurtitzen hasi zen Irungo herritarren gainera». Egunkariaren arabera, matxinoen helburua biztanleria zibila etengabeko izuaren bidez desmoralizatzea zen. Artilleriaren erasoei dagokienean, publikazio honen hitzetan, obusak udaletxe inguruan erori ziren lehenik, geroago herri milizien bilera-kuartela jo zuten eta, jarraian, herriko hainbat etxebizitza partikularretara³³. 1936ko **abuztuaren 29**rako, Irun inguruko operazio militarren erregistro dokumental berriak ditugu, matxinatuek erabilitako hornidura materiala edota munizio-bolumena zehazten dutenak. Hain zuzen, iturrien aurkezpenean aipaturiko Kew-eko (Londres) National Archives-ean gordetako diplomazia militar britainiarraren dokumentuetan, Logroñoko Matxinoen Aerodromoko buruak goizaldean Sevillako Aireko Komandante Ofizialari bidalitako eguneroko gerra-parteen interzeptazioa gordetzen da. Kasu honetan, abiazio italiarrari loturikoa.

Egun honetarako, 0:28tan atzemandako mezuan, Errioxako baseak 7 pilotu eta 20.000 litro erregai zituela zehazten du. Txosten horren arabera, San Martzial gotorlekuan bildutako 7 bonbardaketa-misio gauzatu ziren guztira. Sektorean botatako karga leherkorra ere zehazten da: A5 motako 68 bonba, A6 motako 6 bonba(80 kilogramokoak) eta “itsas bonba” gisa katalogatutako 95 jaurtigai.³⁴ Maximiliano Pardoren egunerokoan ere baditugu egun honetarako bonbardaketen datuak. Ordubete eta hogeita hamabost minutuko iraupena duen hegaldi bat erregistratzen du, Calderon kapitainak pilotatu Breguet XIX biplanoko (138. zk) hegazkinean. Misioa Pagogaña eta San Martzial inguruetako defentsarako gailurren gainera «Errekonozimendua eta Bonbardaketa» zerbitzua izan zen, aldi berean Oiartzun eta Hernani inguruak astinduz. Irungo hirigunearen defentsa-lerroetan eraso hauek gertatzen ari ziren bitartean, badirudi matxinatuen artilleriak jaurtigai batzuk hiri-egituraren kontra jaurti zituela. *Fronte Popular* egunkariaren tokiko kronikek salatu zuten, etsaien bateria batek,

³² *Le Temps*, 1936-08-29.

³³ *Fronte Popular*, 1936-08-29.

³⁴ NATIONAL ARCHIVES, Kew. Kew AIR & HW 21. Aviación italiana (agosto-septiembre 1936)

leku estrategiko batean zegoenak, herritar zibilen aurka granadak jaurtitzera bideratu zen, eta tiroak “etxe merkeen” auzunearen aurka bildu zituen bereziki³⁵.

Era berean, esan dezakegun hiriguneari eta populazio zibilar lotutako mehatxuak areagotuz joan zirela hiria hartu arteko azken egun hauetan. Irungo bonbardaketen kasuan, esan dezakegu ez zutela ziurrenik masa-exekuzio bat bilatzen, estrategia psikologiko garbi bat baino. Hau da, hirian gertatutako suntsipen materialez gain, kolpistek benetako terrore-estrategia baliatu zuten: bonbardaketak egun askotan luzatu eta hiriko puntu ezberdinak suntsitu arren, heriotza-tasa zibila oso txikia izan zen. Funtsean, helburu nagusietako bat hondamen moralak eta, bigarren maila batean, materialak zen.

Hain zuzen ere, Edmond Taylor kazetariak, Hendaia-*Chicago Sunday Tribune* AEBetako egunkarirako bidalitako kronikan argi islatu zen izu psikologikoaren eta mehatxuak areagotzearen estrategia hori. Berriemaileak azaldu zuenez, Emilio Mola jenerala frustatua zegoen oraindik Irun hartu ez zutelako. Bere gizonak gorputzez gorputz higitzea saihesteko, Molak Irunen errendizioa izuaren bitartez bilatu zuen. Chicagoko kazetak jasotako ohartarazpena estrategia horren erakusgarri da; hiriaren erabateko deuseztapenarekin mehatxu egin zuen Molak, errendizioa onartzen ez bazen:

«Matxinatuek (...) bonbardaketa benetan handia egiteko artilleria astun nahikoa ekartzeaz gain, aldi berean, aireko flota matxinatu guztia bildu eta Irun suntsituko dute suzko bonba zaparrada batekin. Bonbardaketa hau astearterako edo asteazkenerako aurreikusita dagoela esaten da, erresistentzia lealista bat-batean erori ezean ...³⁶»

Hurrengo egunetan ere ikusiko dugunez, mehatxu esplizituak erabiliko dituzte berriro ere, kasu honetan, suzko bonben erabilerarekin eta suntsipen totalarekin lotua. Hain zuzen, aurrerago Gernikan egin zutena.

Abuztuaren 29ko gaua lasaia zela azaltzen dute egunkarietako kronikek, baina hurrengo goizean, **abuztuaren 30**ekoan, berriro hasi ziren mehatxuak. Goizeko zortzietan lehen alerta aktibatu zen, defentsarako posizioen eta hirigunearien gainetik hegana egin ondoren, erretiratu aurretik bost bonba bota zituen hegazkina aipatuz. Goizeko bederatzi eta erdietan eraso intentsifikatu zen, bigarren alarma serioago batekin. *Le Temps* eta *L'Humanité*-ren kronikek deskribatzen dutenez, berehala «sirenak eta kanpaiak» entzun ziren

³⁵ *Frente Popular*, 1936-08-30.

³⁶ *Chicago Sunday Tribune*, 1936-08-30.

hiri osoan zehar, hiru hegazkin errebelde agertu baitziren. Aparatuek zerua zeharkatu zuten, eta lau leherketa bortitz entzun ziren herri barruan, eta, ondoren, San Martzialerantz jo zuten. Han jaurti zituzten «beste zortzi bonba, betiere Irungo errepidetik gertu»³⁷.

George L. Steer kazetari britainiarrak, bonbardaketen lekuko zuzena eta Irujoren lanean (2021: 43) aipatua, egiaztatu zuen matxinoen propagandak sortutako atsekabeak eta beldurrak –Irun lurrez, itsasoz eta airez suntsitzearekin mehatxatzen zuena, amore ematen ez bazuen— eragin izugarria izan zutela herritarrengan. Igande gaueko–abuztuak 30– hamarrak aldera, giza marea bat pilatzen hasi zen Hendaiaiko Nazioarteko Zubian. Steerrek kontatzen duenez, goizaldean Hondarribitik etorritako 1.500 emakume eta haur inguruk zeharkatu zuten muga –alkateak ebakuazioa agindu zuen—, eta laster Irungo beste 2.000 gehitu zitzaizkien. Asteleheneko goizeko zortzietan –abuztuak 31—, jendetza handia zegoen mugaren aurrean, baimenak aurkezteko txandaren zain. Gertaera honek biztanleria-ihesaldi handi baten beste handitze bat adierazten du, eta, hurrengo egunetan ikusiko dugun bezala, areagotu egin zen hiriaren gaineko setioa eta erasoak estutu ahala.

1936ko abuztuaren 31n, astelehenean, Irungo koakzio psikologikoaren estrategiak puntu kritiko batera iritsi zen, zuzeneko eraso material bihurtu zelako hein batean, arma inzendiarioen erabilerarekin batera. Aurreko arratsaldean, zehazki igandeko 19:00etan, matxinatutako indarren kuartel nagusiak ultimatum zuzena jaurti zien Irungo agintariei. Ohartarazpenaren arabera, miliziek egunsentia baino lehen kapitulatzen ez bazuten –goizaldeko 3: 00ak muga-ordutzat hartuta—, hiria erabat suntsituko zuten lurrez, itsasoz eta airez batera egindako eraso baten bidez. Hiria berehala suntsituko zela ustez, eta sarraski zibila saihesteko asmoz, Irungo alkateak zibilak berehala ebakutzeko agindu zuen.

Hortaz, abuztuaren 31ko eguna ihesaldiak markatu zuen. Frantziako eta nazioarteko prentsako korrespontsalek kamioietan eta autobusetan pilatutako emakume, haur eta zaharren eszena lazgarriak deskribatu zituzten. *Courier Mail* eta *Le Temps* egunkarien arabera, 5.000 errefuxiatuk baino gehiagok zeharkatu zuten muga, eta horrek Hendaiaiko kaleak kolapsatu zituen. Krisiaren larritasunaren aurrean, Frantziako agintariei, Baionako suprefetoa, Daguerre jauna eta Chauvin generala buru zirela, harrera gailuak, manten banaketa eta txertaketa kanpaina masiboak inprobisatu zituzten, higiene zerbitzuak zuzenduta, jendetza zibilaren artean epidemia-agerraldiak saihesteko³⁸.

³⁷ *Le Temps* eta *L'Humanité*, 1936-08-31.

³⁸ *Courier Mail* eta *Le Temps*, 1936-09-01.

Ebakuazioa agintzeaz gain, agintari errepublikanoek berriro ere eskuindar presoak erabili zituzten erasoak gelditzeko helburuz: «Bahitu gisa atxikitako pertsonak [politikariak] Irunera eraman dituzte, eta bonbardaketak jasaten lehenak izango lirateke³⁹».

Arlo militarrean, atzerriko prentsak agerian utzi zuen matxinatuek zuten kapazitate militarren handitasuna. *Le Temps*-ek, matxinoen abiazioaren potentziala 91 hegazkinetan kontatu zuen, horietatik 39 atzeritik berriki jasotako bonbardaketa unitate modernoak zirelarik. Salaketa horrekin bat eginez, *L'Humanité*k baieztatu zuen indar matxinoek alemaniar jatorriko hegazkin berriak zituztela, nazien aireko indarren ofizialek gidatuta⁴⁰.

Bonbardaketetara itzuliz, ultimatumaren epea goizaldean amaitu zen arren suntsipen totala ez zen gertatu. Hala ere, matxinatuen aireko eskuadroiek eraso gogorra hasi zuten goizeko lehen orduan hiri-sarearen aurka. *Frente Popular* eta *El Socialista* egunkarietako tokiko buruek salatu zuten hegazkinek hiria bonbardatu zutela, eta jaurtigaiak establezimendu benefikoetara zuzendu zituztela⁴¹.

Bestalde, *Calexico Chronicle* egunkariak baieztatu zuenez, matxinoen hegazkinek bi eraso egin zituzten jarraian, su-bonbak erabiliz, eta suak piztuz Irungo erdigunean. *United Press* agentziako ordezkari batek sei aparatuko eskuadroi batek jaurtitako 25 jaurtigai zenbatu zituen. Egunkari estatubatuar berak jakinarazi zuenez, ondoren, *Caproni* hegazkin trimotor italiar batek bost jaurtigai gehiago askatu zituen goizaldean, ondorio suntsitzaile larriekin, eta zuzenean jo zituen komentu bat eta hiriko gasolina biltegiak⁴².

³⁹ *Le Peuple*, 1936-09-01.

⁴⁰ *Le Temps* eta *L'Humanité*, 1936-09-01.

⁴¹ *Frente Popular* eta *El Socialista*, 1936-09-01.

⁴² *Calexico Chronicle*, 1936-09-01.



Callexico Chronicle, 1936-09-01.

Callexico Chronicle-k plano teknikotik deskribatzen zuen eraso fisikoaren aurrean, *Euzkadi* egunkari nazionalistak, irailaren 1eko bere edizioan, hilaren 31ko gertaerei eta, orokorrean, bonbardaketei buruzko hausnarketa etikoko artikulu bat argitaratu zuen. Testu hau gerra totalaren doktrinaren aurkako protesta sutua da. Testuan, erasotzaileak eskualdeko suntsitzaile gisa identifikatzen dira «Irun eta ingurubak suagatuten dabiltzanak», eta faxistak seinalatzen ditu zibilen eta bizitegi-azpiegituren aurkako erasotzaile gisa. Artikulugileak salatzen du bonbak (suagak) nahita jaurtitzen ari direla «gudu-zelaitik kanpo». Beraz, Molak zabaldutako aireko terrorearen estrategiaren aurka egitea da. Era berean, mehatxuzko testua da: esplizituki Victor Pradera eta Honorio Maura izendatuz, beren bonbardaketen bidez suntsitzen ari diren Irunen, eskuindarraren buruzagi estrategikoak ere daudela azalduz. Testuak gordintasunez ohartarazten du, matxinoen hegazkinek hiria birrintzen jarraitzen badute, beren jaurtigaiek bonbentzako janari («suaga-janari biurtu») bihurtuko dituztela buruzagi horiek. Testuak dio bere exekuzio materialaren erantzukizun bakarra faxisten «basatikeria» eta haien eraso indiskriminatuen gain egongo dela, inor osteraz ez kexatzeko («eztagijuela, gero, iñori errukik emon»).

Matxinada -izparrak- eta

Etxeko teiatura begiratu berik auzokuenera arrija botaten zaliak diranai, Gipuzko-Aldezle-Batzarrak erantzun ederra emon ixan dautse.

Irun eta ingurubak suagatuten dabiltzanak, ardura pizkat ixan dagijela, iñoren teiatura arrija botaten dabiltzan orreik, euren etara botateko be arriskuban dabiltzala ba.

Pazizta edo diralako orreik, Irun apurtu gura dabe, ba. Eta irun apurtuteko bide gustijak yakez onak.

Baña Irunen eurentarikuak be bixi dira, buru nausitxubak bixi be. Eta jakiña, Irun apurtuten badabe, apurtu, euren etxeko burubak diranak be, antxe apurtuko dira. Praderatar Bitor, Mauratar Onori ta beste buru agiriko batzuk be, Irunen dagoz, ba.

Irunera ta beste lekun askotara be suagak botaten dabez: Lasartera, Andoainera, Urnietara, Eibarrera ta abar... Guda zelaitik kanpora, irakurle.

Eta guda-era ori, inoren teiatura arrija botaten ibiltia da. Iñor zirikatuten ibiltia, arrisku aundiko guda-erea.

Eta guda-era bakan ori bide dala, euren etierako teiatubak apurtutia lortuko balebe, lortu; Irunen eta abar daukezan buru nagusijak suaga.abuetan jartia jaditxiko balebe ta teiatubak apurtu ta pazizta-burubak suaga-janari biurtu, eztagijuela, gero, iñori errukik emon, euren bururik ezari baño, euren azken bako geide matetasunik ezarri baño... Norberaren etxiaz aiztu ta iñorrenari arrika ibiltia basatikeria da, ta bai arrisku aindikua be. Beraz, kontuz paziztak...!

Errusin be gudarko gertetan edo dabiltz. Eta guda-gertakizun aundijak, egazkiñak egiteko ei-dira. Errusin guda egazkiñak egiten diñardubin langiliak, 200.000 langiletik gora eidora. Beraz, batez beste langile bakotxak urtian egazkin bat egin baleu, gustijen artian 200.000 egazkin egingo leukiez. Egazkin pilo polita, ezta?

Errusik batetik, Italiak bestetik eta Alemania'k eta ábar eta beste leku batzubetatik egazkiñak, era orretara egazkiñak egiten ba-larraitse, goi-aldiak egazkiñak egatuteko be gitxi ixango dira, aurki.

Egaz egiteko jayuak diran txoritxubentzat goyetan tokirik ezta ixango.

Ludija goikoz bera ta bekoz gora jarriko ete yaku jarri? [...]⁴³

(*Euzkadi*, 1936-09-01)

Azkenik, erredaktoreak argi eta garbi adierazten du Gipuzkoaren –eta Irunen– gaineko zigor sistematikoa gerra-aro berri baten hasiera dela. Bere kexak ohartarazten du eskuadrillen ugaritzeak azkenean erabat asetuko duela zeruko espazioa: «egaz egiteko jayuak diran txoritxubentzat goyetan tokirik ez ixango» (ez da lekurik egongo zeruan, ezta hegan egiteko jaiotako txorikumeentzat ere). Hortaz, organo jeltzaleak aire-gerra moderno berria

⁴³ *Euzkadi*, 1936-09-01.

sufritzen ari den biztanleriaren eta hiriaren inpaktua islatzen du, Irungo suntsipenaren testigantza bat gehiago bilakatuz.

Bonbardaketen jarraipenarekin segituz, hurrengo egunean, 1936ko **irailaren 1ean**, indar matxinoek berriz ekin zieten bombardaketei. Inteligentzia zerbitzuek atzemandako eta Kew artxiboan gordetako dokumentu ofizialak, gaueko 00:03 eraso berri baten inguruko planifikazioari eta bolumenari buruzko froga aurkezten du. Erregistro operatibo horrek aireko basearen berehalako erabilgarritasun logistikoa finkatzen du, 9 pilotu eta 30.000 litroko erregai zeuden erreserban erasorako. Operaziorako esleitutako flotak, bombardaketa aparatuak eta jatorri ezberdineko hegazkinak konbinatzen ditu: 3 Breguet aparatu (errekonozimendu eta bombardaketa arineko hegazkinak), 4 Fokker aparatu (iparraldeko frontean militarizatutako trimotor komertzialak) eta 2 Junker aparatu (Alemania naziak hornitutako bonbaketari astunak). Operazioen orri honek zehazten duenez, talde horrek lau irteera egin zituen guztira: Irun zuzenean bonbardatzeko hiru misio eta laugarren bat Bizkaian. A5 motako 72 bonba, 50 kg-ko A6 motako 6 bonba, 80 kg-ko A6 motako 14 bonba eta "Naval" motako 80 bonba erabiliz⁴⁴. Bando errebeldearen barne-datu horiek bat datoz euskal tokiko prentsak irailaren 2an egindako oharrekin; *Euzkadi* egunkariak kalkulatu zuen zazpi aparatuk zeharkatu zutela zerua goizeko lehen orduetan, eta kalkulatu zuen 150 bonba baino gehiago bota zirela⁴⁵.

Egun honetako bombardaketak eragindako kalte materialei dagokienean, tokiko prentsan jaso zenez espazio zibil, politiko eta erlijiosoak kaltetu ziren. *Frente Popular*-ek dokumentatu zuenez, goizeko sei eta erdietarako bonba batek erabat suntsitu zuen Zentro Errepublikanoa zegoen eraikina, hondakin bihurtuz⁴⁶. *Euzkadi* egunkariak bere orrialdeetan baieztatu zuen inpaktu hori⁴⁷. Era berean, *Frente Popularrek* zehaztu zuen lehergailuak erori zirela errepidean, beheko ospitalearen aurrean, eta Kristau Doktrinaren Anaien eskolen eraikina suntsitu zela. *Euzkadi* egunkariak zenbaketa horri kalte handiak gehitu zizkion beste hirigune batzuetan eta kalte bereziak Eskolapioen komentuan. Eraso eta suntsiketa hauetaz gain, prentsa internazionalak –*Le Temps* eta *New World Sun* egunkariak– hurrengo kalteak kontatu zituzten: etsaien hegazkin batek –Caproni italiar trimotore gisa identifikatua, aurretik arma suzko armekin egindako erasoaldi baten ondoren– bost bonba astun askatu zituen jarraian, tren-geltokiko auzoan eragin suntsitzaile handiarekin, ke zutabe trinkoak altxatuz⁴⁸.

⁴⁴ NATIONAL ARCHIVES, Kew. Kew AIR & HW 21. Aviación italiana (agosto-septiembre 1936)

⁴⁵ *Euzkadi*, 1936-09-02.

⁴⁶ *Frente Popular*, 1936-09-02.

⁴⁷ *Euzkadi*, 1936-09-02.

⁴⁸ *Le Temps* eta *New World Sun*, 1936-09-02.



La aviación faciosa volvió ayer a cobardar sobre la población civil irunesa. Los resultados de su cobarde y criminal agresión se refleja en esta muestra que representa los restos marales del edificio de Izquierda Republicana de Irún (Fot. Marín)

Frente Popular, 1936-09-02.

Hurrengo egunean *Le Temps*-ek jasotako balantze ofizialek gaineratu zuten astearteko erasoak hogeit bat eraikin suntsitu edo larri kaltetu zituela, eta esplizituki identifikatu zuten hiribilduaren barruan eraikin kaltetuenak Zentro Errepublikanoa, anaien ikastetxea, tren-geltokia eta Herriko Etxea izan zirela. Baita ere, tren-geltokiaren zonaldeak zigor kontzentratua jasan omen zuen⁴⁹.

Bestalde, *L'Humanité*-k suntsipenaren elementu erabakigarri bat kontatu zuen: goizeko 7:30tan, Junkers trimotor batek, beste bi aparailuk eta hiru hegazkineko bigarren eskuadrilla batek jarraituta, hegaldi koordinatu bat egin zuten, non, berehala, «Irún ke horizko hodei trinko batean bildu zuten». Ke horia, lehergai astunen eta material inzendiarioen errekontzak eragindakoa, hiria aldatzen eta suntsitzen ari zen eraso baten erakusle zen. Berrito ere, bonbardaketa hauek mugaren beste aldean eragina izan zuten, hain zuzen, Biriaturko herrian beste behin, bi obus erori baitziren bertan⁵⁰.

⁴⁹ *Le Temps*, 1936-09-03.

⁵⁰ *L'Humanité*, 1936-09-02.

Egun honetako bonbardaketa gogorren ondorioz, herritik ihes egin zuen populazio zibilaren kopurua handitu egin zen. Kasu honetan, *Le Peuple*-k beste 4.000 lagun en exodoa erregistratu zuen, gehienak emakumeak eta haurrak, Frantziarantz muga zeharkatu zutenak eraso en gogortasunetik ihesi⁵¹. *Le Temps*-ek honela deskribatu zuen biztanleria-mugimendu hori: Irungo ebakuazioaren amaiera gisa, hiri huts bat deskribatuz, plazetan haurrik gabe eta kaleetan emakumerik gabe⁵².

1936ko irailaren 2ra pasaz, egun honetan matxinatuek eraso masiboak eragin zituzten, plangintza logistikoa eta biztanleria zibilarekiko zigorra konbinatuz. Batetik, Kew-eko artxiboan atzemandako operazio militarren erregistroak, goizaldeko 01:40an datatua, ofizialki eguna «eraso-intentsitate handieneko lanalditzat» jotzen du. Txosten horretan, 9 pilotu aktibo eta 2 Junker, 3 Fokker eta 3 Bregueteko flota zehazten da eskuragarri, baita konpontzen dagoen laugarren Fokker bat ere. Kasu honetan, aipatzen da «Irungo frontearen gainean» zuzendutako eraso masiboko 10 misio gauzatzen direla. Egun honetako erregistroen arabera, hamar eraso hauetan 259 jaurtigai bota zituzten guztira: A5 motako 72 bonba, 50 kg-ko 91 bonba, 80 kg-ko 16 bonba astun eta "Naval" motako 80 bonba⁵³.

Prensa lokalak, bere aldetik, herrigunearen aurkako erasoak ere salatu zuen; bai *Euzkadi* bai *La Gaceta del Norte* egunkariak erregistratu zuten «Irungo biztanleria zibilean ere baja batzuk izan direla, matxinoen hegazkinak bonbardaketa kriminala egin dutela berretsi baitute, bertako biztanleek inolako errespeturik gabe»⁵⁴.

Oro har, azken egunetan ematen ari zen setioaren larritasunak berehalako oihartzuna izan zuen atzerriko prentsan. Irailaren 2an, asteazkena, Londrestik bidalitako eta *North Western Courier* egunkariak zabaldutako despatxu batek egoeraren larritasuna islatu zuen, Irungo erorketa berehalakotzat jotzen zela adierazi baitzuen, eta hiriaren erortzeak Badajozeko atzitzearen ondorengo sarraskia errepikatzeko beldur esplizitua adierazi zuen⁵⁵.

1936ko **irailaren 3an** berriro erregistratu zen operazio militarren bilakaera, goizaldeko 01:31n atzemandako base errebeldearen barne-albistegietan. Kasu honetan, 13 pilotu aktiboren erabilgarritasuna eta 39.000 litroko erregai-biltegia zehazten da. Bestalde, flota operatiboak 3 Junker, 3 Fokker, 3 Breguet eta 3 Dragon motako aparatu zituen, eta,

⁵¹ *Le Peuple*, 1936-09-02.

⁵² *Le Temps*, 1936-09-02.

⁵³ NATIONAL ARCHIVES, Kew. Kew AIR & HW 21. Aviación italiana (agosto-septiembre 1936)

⁵⁴ *Euzkadi* eta *La Gaceta del Norte*, 1936-09-03.

⁵⁵ *North Western Courier*, 1936-09-03.

gainera, konpontzen ari zen Fokker bat. Alderdi operatiboan, Junker-ak Zaragozako frontean aldi berean aritzen ziren bitartean, gainerako taldeak «Irunen zuzeneko bonbardaketa» egiteko bi misio gauzatu zituela zehazten du parteak⁵⁶.

Egun honetan ere izan ziren bonbardaketak, hiriaren setioa amaierara iristen ari zen bitartean. *Euzkadi* egunkariak adierazi zuenez, hegazkinlari matxinoek «Irungo biztanleria zibila bonbardatzeko ohiko bideetara jo zuten»⁵⁷. Ildo beretik, *Fronte Popular*-eko organoak salatu zuen matxinoen bandoak «hiri irekiak ez errespetatzeko taktikari» jarraitzen ziola, eta egunean zehar hainbat aldiz jardun zuela «bere lan suntsitzaileari ekiten». Kazeta horren arabera, jaurtigaien ibilbideak salatzen zuenez, hirigunean egin ziren eraso gehienak, «gudu-fronteetatik kanpo»⁵⁸. *Euzkadi* egunkariak estrategia horren ondorio materialez ohartarazi zuen, gatazka amaitzean herriak «faxisten doilorkeriak hondatutako eta Fundazio ederrenetan ere suntsitutako herriaren itxura tristea» eskainiko zuela esanez. Bereziki, San Martzial Ikastetxe Katolikoak jasandako bonbardaketa berria aipatzen dute, Kristau Eskoletako Anaiak zuzendutako zentroa, irailaren 1ean ere bonbardatua.

Eskola honetaz gain, tokiko prentsak egun honetan bonbardatutako beste hainbat toki aipatzen ditu, zehaztuz eguneko kalterik handienak azpiegitura logistiko eta industrialetan izan zirela, suzko jaurtigaien erabileraren ondorioz. *Frente Popular*-ek argitu zuen hegazkinak «bonba kopuru handia bota zutela, gehienak inzendarioak, iparraldeko geltokiko deposituen, Poxpolo fabrikaren eta etxe partikular batzuen gainean, eta horietan garrantzi handiko kalteak egin zituztela». Poxpolo Fabrikari dagokionez, *Euzkadi* egunkariak zehaztu zuen goizeko hamaikak aldera hegazkin batek bonba bat lantegira erortzen utzi zuela, eta ondoren «sute bortitza» izan zela. Sute horrek eraikina inguratu zuen, «laster fabrika errauts bihurtu zuen arte». Industria eta higiezinaren ehunaren gaineko hondamen horiek *The Telegraph* egunkari ingelesaren gaueko kronikak berretsi zituen. Kronika horrek baieztatu zuen Poxpolo Fabrika, jaurtigai batek jo ondoren, «amorrusutan» zegoela («blazing furiously»). Aldi berean, arratsaldean Behobiako sektorean itzalaldi orokor bat gertatu zela aipatzen da, artilleriaren inpaktu batek hornidura elektrikoaren kable bat moztu zuelako⁵⁹.

⁵⁶ NATIONAL ARCHIVES, Kew. Kew AIR & HW 21. Aviación italiana (agosto-septiembre 1936)

⁵⁷ *Euzkadi*, 1936-09-04.

⁵⁸ *Frente Popular*, 1936-09-04.

⁵⁹ *The Telegraph*, 1936-09-04.



En las inmediaciones del río Bidasoa parece ser que se ha abierto un volcán. Es la explosión de una bomba incendiaria lanzada por los viles criminales que traicionaron a la República española. Por la noche, el incendio, parecía una de las páginas tétricas descritas por Dante.

Euzkadi en Catalunya, 1937/02/24.

Aire-erasoekin batera, Irun erori arteko azken egun hauetan, hiribilduan bertan hasi ziren kale-borrokak gertatzen. Besteak beste, eraikinen defentsa-erabilerak zein borrokaldi hauek ere, suntsipen fisikoa okertu zuelarik. *The Telegraph*-eko berriemaileak deskribatu zuenez, indar errepublikanoak temati gotortu ziren «hondar zakuen barrikaden atzean eta presaka gotortutako etxeetan», Behobiatik zetozen matxinoen aurrerapena geldiarazteko ahaleginean, Irungo azken erasorako giltza⁶⁰. Despatxuek zehazten dutenez, zutabe errebeldeek, arto-soroetan zehar egin zuten aurrera iluntzean. Irungo aldirietara iristea lortu zuten, eta gauean nazioarteko zubitik gertu aktibo jarraitu zuen borrokak. Era berean, *The Telegraph*-ek salatu zuenez, galdutako bala Hendaiako kaleetara igaro ziren etengabe. Bertan, hiru jendarme eta turista bat zauritu ziren. Mugako pasabidearen egoera erabat jasanezina bihurtu zen su gurutzatuagatik, eta, ondorioz, Frantziako agintariek beren kontrol bulegoak utzi behar izan zituzten.

⁶⁰ *The Telegraph*, 1936-09-04.

Aipatzekoa da, muga zeharkatzea lortzen zuten errefuxiatu zibilek Irungo erorketa saihestezina zela onartu zutela berriemaileen aurrean, baina formalki adierazi zuten Molaren zutabeen sarrera «garaipen antzua» izango zela, hiria «azken minutuan lehertua» izango zelako⁶¹. Halako mehatxuak ohikoak izan ziren Irun erori aurreko azken egunetan. Bestalde, Hearst Metrotone News konpainia amerikarraren lekukotasun zinematografikoan jada, metraje gordineko biribilkiek fisikoki harrapatu zuten sutan zeuden Poxpolo Fabrika, geltokian izandako bonbardaketak, hondatutako Zentro Errepublikanoa edota hegazkinek kolapsatutako komentua⁶².

1936ko **irailaren 4ko** Irungo erasoaldiaren gailurra ez zen bat-bateko kolapso baten edo milizien bat-bateko erretiratze bat bidez gertatu. Haatik, kalez kale hirigunean bertan borroka luze eta bortitz bat eman zen, aurreko egunetik hasia zegoena. Hurrengo eguneko tokiko goiburuek erasoan erabilitako baliabideen ezberdintasuna deskribatu zuten. *Frente Popular* egunkariak salatu zuen artilleriaren eta abiazioaren bidez mugarik gabeko basakeria hedatu zutela egun honetan ere⁶³. *Euzkadi*-ko kronikek baieztatu zutenez, zutabe erasotzaileek material guztia pilatu zuten, aldi berean «ameterailadoreak, fusilak, tankeak, kanoiak eta abiazioa» erabiliz. Egunkari honen hitzetan, bi egun eta bi gau etenik gabeko liskarren ondoren, hiriaugarrek erabat bilduta geratu zen, eta euskal prentsak «izugarritzko su» gisa deskribatu zuen. Aurreko egunetan, defentsa-erakundeek ohartarazi zuten etsaiaren sarrera «hondakin pilo baten gainean» egingo zela, «sakrifizio historiko baten pira loriatsuak argiturik»⁶⁴.

Molaren zutabeen aurrerapena zehazki erregistratu zuen Frantziako prentsak. *Le Temps* eta *Le Midi socialiste* egunkarien arabera, matxinatutako tropek goizeko 06:00etan ekin zioten aurreratzeari, Behobiako mugako sektorea okupatuz. 09:00ak aldera, unitate blindatuek Poxpolo Fabrika gainditu zuten –aurreko eguneko bonbek suntsituta–, eta hiriguneko lehen etxeetara iritsi ziren. Une horretatik aurrera, matxinoen aurrerapenak erresistentzia armatuko nukleoekin topo egin zuen, eta higiezinak gotorleku bihurtu zituzten⁶⁵. Australiako *The Canberra Times* egunkariak borroka horren izaera suntsitzailea

⁶¹ *Idem.*

⁶² *Hearst Metrotone News* (UCLA)

⁶³ *Frente Popular*, 1936-09-05.

⁶⁴ *Euzkadi*, 1936-09-05.

⁶⁵ *Le Temps* eta *Le Midi socialiste*, 1936-09-05.

zehaztu zuen, «dozenaka esku-granada jaurti zituzten defendatzaileek tiro egiten zuten leihoen barrura»⁶⁶.

Hain zuzen, kalez kaleko borroka honek kausalitate bikoitzeko perspektiba bat sartzen du hiriak jasan zuen suteari dagokionez. Erasotzaileen jaurtigai sukoien bonbardaketa sistematikoak eta eskuko granaden erabilerak kale ugari suntsitu zituzten arren, nazioarteko iturriek, halaber, errepublikanoek ere nahita egindako ekintzak erregistratu zituzten. *The Canberra Times*-en kablegramek adierazi zutenez, «erretiratzen ari ziren leialek su eman zieten eraikin nagusietako batzuei», eta erabaki zuten matxinoek «hiriaren eskola» bakarrik heredatzea garaipenaren ondoren. George L. Steer berriemaile britainiarrek zehaztu zuen Paris hotelari, joko-klubari, txokolate-fabrikari eta Colon pasealekuko eta hiriguneko hainbat etxadiri su eman zietela. Ildo beretik, *Le Temps* eta *L 'Humanité* egunkariak azaldu zuten milizianoek automobil biltegi bati su eman ziotela nazioarteko zubiaren inguruan, muga zeharkatu aurretik. Hala ere, prentsan bonbardaketen ondorio materialak nabarmentzen jarraitu zen: «Matxinoen bonbardaketa bortitzak suntsitutako Irungo etxe bat».



Le Midi socialiste, 1936-09-05.

⁶⁶ *The Canberra Times*, 1936-09-05.

Setioaren azken uneetan erresistentziak bere horretan jarraitu zuen. *Euzkadi* egunkariak azaldu zuenez, hondamenaren erdian, «oraindik miliziano dezente daude artasoroen artean eta su hartutako etxeetako hondakinen artean». Arto soroen eta hiri-barrikada inprobisatuen agertoki espezifiko horiek ere Hearst Metrotone News zinema-konpainiak atzemandako materialetan ikusten da. Konpainia horren kamerek harea-zakuen lerroak grabatu zituzten hiri-bideen erdian, baita defentsarako parapetoak ere⁶⁷. Goizeko 10:00etan, erresistentzia modu kritikoan kontzentratu zen Frantziako sarbideetan; *L'Humanité* eta *Le Midi socialiste* egunkarien kronikek hamabost bat miliziano deskribatzen dituzte, nazioarteko zubiaren buruan koltxoiekin egindako barrikaden atzean parapetatuta Aldi berean, hogeita hamar batek suari eutsi zioten Kolon pasealekura ematen zuten eraikinetako leihoetatik, prentsa frantsesaren arabera⁶⁸.

Defentsaren kolapsoa bizkortu egin zen eguerdia pasata. Bentako errepidean kontraeraso saiakera baten ondoren nazioarteko zubiaren azken defendatzaileek metroz metro atzera egin behar izan zuten koltxoien babespean, inguruan dinamita kargak lehertzen ziren bitartean. 14:15ean, Mola jeneralaren indarrek formalki okupatu zuten Irungo Udala, nahiz eta tiroak entzuten jarraitu ziren hiriguneko hainbat tokitan arratsaldean.

Matxinatutako tropak hiriaren barnera sartzeko unea indarkeria eta errepresalia handiko eszenatokitza jo zuten behatzaile atzerritarrek. *L'Humanité* egunkari frantsesak gertakarien lekuko izan zen kazetari britainiar baten txostena erreproduzitu zuen. Kazetari horrek telegrafiatu zuen Irungo kaleak benetako «hiltegi» bihurtu zirela. Testigantza horren arabera, bizirik harrapatutako defendatzaile guztiak, gehienak ezkerreko militanteak, berehala exekutatu zituzten, eta exekuzioak ebakuazio orokorrean parte hartu ezin izan zuten adineko, emakume eta haurrek osatutako biztanleria zibileria hedatu ziren. Gauean, milaka errefuxiatuk Hendaia-arako muga zeharkatzen zuten bitartean, euri jasa etengabea, Irunek sutan jarraitzen zuen iluntasunean⁶⁹.

Irailaren 5ean, Irun hartzeko azken saiakerak erregistratu ziren. *Le Temps* egunkari frantsesak jakinarazi zuenez, egunsentian, Fronte Popularreko berrehun bat milizianoko talde bat Hondarribitik itzuli zen, nazioarteko zubiaren eta trenbidearen defentsari berriro ekiteko.

⁶⁷ Hearst Metrotone News (UCLA).

⁶⁸ *L'Humanité* eta *Le Midi socialiste*, 1936-09-05.

⁶⁹ *L'Humanité*, 1936-09-05.

Maniobra taktiko hori «Bartzelonatik Donostiara bidalitako munizio-bagoiei pasatzen uzteko» egin zen. Material-atzera-egite hori amaitu ondoren, azken erresistentzia hau desegin egin zen.

Tribune egunkari australiarrek aldiz, irailaren 5eko data duten bulegoen bidez, egiaztatu zuen matxinatuen zutabeek, jada «Irungo jabe absolutu» bihurtuta, garbiketa orokorreko operazioa hasi zutela arratsaldean, suntsitutako hirian. Tropek aurrera egin zuten hondakinen artean, ihes egin ez zutenen aurka eskuko granadak jaurtiz. Suzko fokuen intentsitatea hain zen handia, ezen, *Tribune*-ko korrespontsalaren arabera, tropa okupatzaileak aldi baterako hiri kanpora erretiratu behar izan baitziren gauez hurrengo goizera arte⁷⁰.

Bien bitartean, populazio zibilaren ebakuazioak aurrera jarraitu zuen azken bi egun hauetan ere. Erbestealdi behartu hori Iparraldeko kanpaina osoko gogorrenetakoa izan zen: muturreko baldintzetan aduana-pasabideak zeharkatzen zituen giza marea traumatizatu bat deskribatzen dute garaiko korrespontsalek. Hendaiaiko alkate M. Lalannek babes ofiziala eskaini zien Irungo biztanleei, Espainiako tokiko agintariak ebakuazio planen berri eman ondoren. Hendaia iristen ari ziren milaka zibilen harrera eta banaketa antolatzeke, premiazko bilera tekniko batera deitu zituen Iparraldeko kostaldeko herri nagusietako alkateak, zehazki Biarritz, Baiona, Donibane Lohizune eta Angelukoak, sare amankomun bat ezarritz.

Azken buruan, atal honekin amaitzeko, esan dezakegun 1936ko abuztua eta iraila bitartean Irunen jazotako bonbardaketak ez zirela izan gerraren bigarren mailako elementuak. Kontrara, gerra totalaren, izu psikologikoaren zein suntsipen materialaren estrategia zabalago baten parte izan ziren. Erasoaldiak azkar bihurtu ziren lur, itsaso eta airez konbinatutako eguneroko arau. Setioa intentsifikatzeko suzko jaurtigaiak, gerra kimikoaren mehatxua edota Badajozeko sarraskiaren mamua erabili ziren, kolapso morala bilatuz hiri hartu baino lehen. Logika suntsitzaile horrek ondorio garbiak izan zituen bai hiriaren fisionomian zein irundarren esperientzia kolektiboan.

5. Irunen suntsipena eta osteko narratiba

Irungo hiriguneak 1936ko irailean jasan zuen suntsipenak eta setioaren amaierak gatazkaren dimentsio berri bat ekarri zuen: errelatoarena. Informe honen helburua abuztua eta

⁷⁰ *Tribune*, 1936-09-06.

iralean gertaturiko bonbardaketa frankistetan sakontzea izan arren, hausnarketa historiografikoa egin behar da suntsipenaren arrazoien eta osteko errelatoaren inguruan.

Informe honetan erregistratutako egunez eguneko erasoen kronikak, argitzen dute Irun ez zela ustekabeko sute batekin suntsitu. Aurretik, airez, lurrez eta itsasoz bonbardatzeko kanpaina sistematikoa jasan zuen, hiria gerra totalaren laborategi goiztiar bihurtu zuena. Hau da, irailaren 4eko erretzearen inguruko eztabaida tradizionalaren aurrean –oraindik ere irundarren memoria kolektiboan gatazkak pizten dituen– txosten honetan fokua sutearen egunaren aurretiko bonbardaketetan jarri nahi izan da. Zehazki, hirigunean bertan egindako bonbardaketetan. Gehienbat, egunean eguneko iturriak erabili direnez, hala nola prentsa garaikidea, aireko eragiketen erregistroak, kanpainako argazkiak eta filmazio dokumentalak, aurretiazko errealitate batera hurbiltzen saiatu gara. Helburu nagusia, beraz, hiriaren suntsipenari buruzko iruditeria sozialean oraindik ere dagoen azalpen-hutsune hori osatzea eta argitzea izan da. Frogatuz, hiria suntsitze-prozesu aurreratuan zegoela irailaren 4a baino askoz lehenago, gehienbat, bonbardaketen kanpaina sistematiko baten emaitza gisa.

Irun erori aurretik hondamendi materiala jada konponezina zela egiaztatzean, aurretiko erasoen benetako pisua irailaren 4eko suteekin orekatzen duen irakurketa egitera bultzatzen du, sinplifikazioak saihestuz. Gauzak horrela, ezin da ukatu irailaren 4eko suak kausalitate ezberdinei erantzun ziola: non setioaren berezko dinamikak bestelako ekintzekin gurutzatu ziren. Nazioarteko kronikak berak errepublikanoen sektoreek nahita eragindako suteak aipatzen dituzte eraikin nagusietan eta garraio-biltegietan. Hala ere, Irungo suntsipena milizien lur errearen politika batera mugatzea teknikoki sostengaezina da txosten honetan aztertutako aurretiko erregistroen aurrean. Hiria egunero Frankok aginduriko jaurtigaien saturazioa jasaten ari zen, eta horri azken hiri-borrokaaren indarkeria gehitu behar zaio, non tropa matxinoek ere, esaterako, esku-granadak jaurti zituzten etxeetako leihoen barrura, hiribilduan sute ugari eraginez.

Irun hartu ondoren, matxinatuak errelato bat osatzen joan ziren irailaren 4ko hiriaren suntsitzearen inguruan. Alde batetik, frankismoaren propaganda-aparatuak eta antzeko prentsaren kronikak berehala finkatu zuten *tabula rasa*-ren mitoa. Kontakizun hegemoniko horren arabera, Irun suntsitzea anarkista eta Fronte Popularraren milizien basakeriaren ondorio bakarra izan zen. Errelato honek balio izan zien euskal hirien “autoerreketa”-ren diskurtsoa zabaltzeko eta finkatzeko. Hain zuzen, esaterako, AGAn zaindutako ohar ofizialek Salamancako Prentsa eta Propagandarako Estatuaren Ordezkaritzaren eta Erresuma Batuko

bere agente ofiziosoen arteko despatxu gurutzatuak gordetzen dituzte. Horiek Alfonso de Olanok eta Juan Matak orkestratu zituzten, Albako Dukearen babespean, Londrestik. 1937an Bizkaiari egindako erasoaldiarekin, Francoren Kuartel Nagusiak Ohar Ofiziala eman zuen urte horretako ekainaren 15ean, britainiar prentsan kontra-informazio kanpaina bat aktibatzeke jarraibide zehatzekin⁷¹. Bertan, ofizialki instituzionalizatu zen erreketaren dogma, eta sistematikoki erabili zen Irunen adibidea, koartada perfektu gisa Itali-Alemaniar hegazkinak Eibarri, Durangori eta, modu paradigmaticoan, Gernikari egindako bonbardaketa suntsitzaileak nazioarteko komunitatearen aurrean ukatzeko. Eta era berean, noski, errepublikanoen errua egozteko. Urte batzuen ondoren, oster, Auzi Orokorreko dokumentuak aztertzean, paradoxa judizial bat ikusten da: miliziek hiria modu globalean eta kontzientean erre zutela aldarrikatu ondoren, diktadurako makineria judizialak aldatu egin zuen bere terminologia, eta suteak «jende solteari» edo «kontrolak gabeko elementuei» egotzi zizkien.

Irungo bonbardaketak eta frankistek eragindako suntsipenak ez ziren soilik herria hartu ondoren ezkutatu baina. Bonbardaketak gauzatzen hari ziren unetik bertatik indarkeria ezkutatu eta ezeztatzeke estrategia izan zuten, baita Irunen ere. Italiar behalariak idatzitako dokumentuak argi eta garbi adierazten du egitura propagandistiko horren monopolioa Joaquin Arrasek zuzentzen zuela Iruñetik. Bertan azaltzen du erreportari independenteen atxiloketa, FOX konpainia estatubatuarreko atzerriko zinema-operadoreak eta talde frantsesak atxilotu izana, baita kazetariak modu sumarisimoan fusilatu izana ere. Preseski, hala deskribatu zuen frankisten kanpaina: «Matxinoek kanoiak, armak, hegazkinak, pilotuak, ofizialak eta lekukorik ez egotea baino ez dute eskatzen»⁷².

Irungo kasuko adibide adierazgarria F. A. Ricek, *Morning Post* britainiar egunkari garrantzitsu eta kontserbadorearen korrespontsalak, izandako gertakaria izan zen. 1936ko irailaren 11n, Aguilera kapitainaren aginduz —prentsa frankistako ofiziala—, Rice atxilotzeko ordena eman zen, bi artikuluren ondorioz. Hautako bat Frantziatik bidali zuen Ricek, eta bertan esplizituki deskribatzen zuen irailaren 1eko Irungo bonbardaketa suntsitzailea, «matxinatuen izugarrikeria» esamoldea erabiliz. Atxilotu ondoren, Aguilera mehatxu zorrotza egin zion kazetariari, bere indarrei «matxino» deitzera ausartzen zen informatzaile orori itxarongo zizkion ondorio larriekin, edo errepublikanoen alderdiari «leial» edo «gobernuaren tropa» gisa erreferentzia egiten zionarekin. Zentsoreak Riceri eskatu zion alde

⁷¹AGA. Embajada de España en Londres. P-000953-2022 eta 54-06856-00004.

⁷²AGA, 12-03197-00013. Reflexiones sobre la caída de Irun.

frankista berehala uzteko edo zaintza militar estu baten pean egoteko. Hertsapen-egoera horren aurrean, Ricek alde egitea erabaki zuen, eta herrialdea utzi zuen.

Beraz, ikusi dugu nola bai uneko zentsuraren bidez eta osteko errelatoarekin ere, bonbardaketak eta hauen ondorioak isildu zituela makineria frankistak. Irunen inguruko kontakizun honek, ondoren, Iparraldeko gerra definitu zuen diskurtso informatiboaren oinarri batzuk finkatu zituen. Txostenarekin amaitzeko, beraz, esan dezakegun 1936ko iraileko Irunen “suntsitzea” ezin dela hilaren 4ko sutearen mugarrira murriztu. Irunen jabe izateko kanpaina bortitz baten testuinguruan ulertu behar da, bonbardaketa sistematikoek paper erabakigarria izan zuten prozesu metatzaile baten emaitza gisa. Honetan, gerra totalaren laborategi goiztiarra izan zen Irun.

Txosten honetan jasotako ikerketa historiko eta dokumentalak argi uzten du ezinezkoa dela 1936ko irailean Irungo hiriguneak jasandako suntsipena azken sute isolatu batera soilik mugatzea. Aitzitik, lurrez, itsasoz eta airez egindako bonbardaketa sistematiko baten emaitza metatzailea izan zen, herria gerra totalaren laborategi goiztiar bihurtu zuena. Nahiz eta irailaren 4ko suak kausalitate material konplexu bati erantzun zion —setioaren dinamikak, indar errepublikano zein anarkisten suteak eta tropa erasotzaileen ekintzak konbinatu zirelako—, hondamendia milizien lur errearen politikari soilik esleitzea teknikoki defendaezina da, artilleria eta hegazkin frankistek aurreko asteetan eragindako suntsipenaren aurrean.

Irati Zuriarrain Asurmendi.

Aranzadiko Memoria Historikoaren arloko historialaria.

Donostia, 2026-06-30.

BIBLIOGRAFIA:

- Alpert, M. (2020). *La Guerra Civil en el aire: Alemanes, soviéticos e italianos en los cielos de España*. La Esfera de los Libros.
- Arnabat Mata, R. (2017). Refugios antiaéreos: aproximación histórica, arqueológica y patrimonial. *Historia del Presente*, 29, 95-106.
- Barruso Barés, P. (1996). *Verano y revolución: La Guerra Civil en Guipúzcoa (julio-septiembre)*. R & B, Donostia-San Sebastián.
- Collins, G. R., & Collins, C. C. (Eds.). (1986). *Children's Drawings of the Spanish Civil War: A Collection of 153 Drawings by Children Living in Refugee Colonies During the War*. Spanish Institute.
- Díez Pomares, G. (2016). Los bombardeos italianos sobre el País Valenciano durante la Guerra Civil española: un estudio fotográfico. *Pasado y Memoria: Revista de Historia Contemporánea*, 15, 181-202.
- Etxepare, L., & García Nieto, F. (2018). La depuración franquista en la administración durante la posguerra: el caso de Luis Vallet de Montano. *Sancho el Sabio, Extra 1*, 177-204.
- Herreros, F., & Criado, H. (2009). Pre-emptive or Arbitrary: Two Forms of Lethal Violence in a Civil War. *Journal of Conflict Resolution*, 53(3), 419-445.
- Irujo, X. (2021). *Atlas de Bombardeos en Euskadi (1936-1937)*. Gogora Institutua.
- Mayoral Guiu, M. (2013). *Evacuación y acogida en Francia de los refugiados de la Guerra Civil española procedentes del Frente Norte (1936-1937)* [Tesis doctoral]. Universidad de Salamanca.
- Missbach, K. J. (2024). *"Lessons Not Learned": U.S. Ambassador Claude Bowers and the Spanish Civil War*. Chapman University.
- Palumbo, L. M. (2017). *La guerra civil en el País Vasco en la prensa local norteamericana (1936-1939)*. [Doktorego Tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ranzato, G. (2004). Guerra civil y guerra total en el siglo XX. *Ayer*, 55, 127-148.
- Schüler-Springorum, S. (2009). El mito de Guernica: proyección, propaganda, política. *Historia del Presente*, 14, 123-136.
- Urgoitia Badiola, J. A. (2001a). *Crónica de la Guerra Civil, de 1936-1937, en la Euzkadi peninsular: La pérdida de Guipúzcoa* (Tomo 1). Sendoa.
- Urgoitia Badiola, J. A. (2001b). *Crónica de la Guerra Civil, de 1936-1937, en la Euzkadi peninsular: La pérdida de Guipúzcoa* (Tomo 2). Sendoa.

- Villarroya i Font, J. (2017). *Badalona sota les bombes, 1936-1939*. Museu de Badalona.
- Volkmar Ossa, N. (2023). Extrema violencia contra civiles como método de guerra en España (1936-1939): fotoperiodismo y doble potencial de la fotografía. *Historia Contemporánea*, 72, 699-738.

Artxiboak:

- Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
- AGA (Archivo General de la Administracion)
- Archivo Histórico del Ejército del Aire
- The National Archives (Kew)
- Archivo General Militar de Avila

Hemerografía

- Frente Popular
- El Pueblo Vasco
- Euzkadi
- Le Temps
- L'Humanité
- Le Peuple
- The Times
- Daily Mail
- The New York Times
- Calexico Chronicle
- The Sydney Morning Herald
- The Newcastle Sun
- Sunday Mail
- Truth
- The Sun
- The Morning Bulletin

Iturri grafikoak

- Hearst Metrotone News
- Kutxateka

Eranskina:

Irungo bonbardaketen taula (1936ko abuztua-iraila)

Data	Lekua(k)	Bonbardaketa mota	Oharrak
Abuztuak 9	Irungo hirigunea	Airez (Dragon Rapide)	Lehen bonbardaketa; kalte txikiak, proba-erasoa
Abuztuak 12	Irungo alde zaharreko etxe bat	Airez	Lehen inpaktu zuzena eraikin zibil batean
Abuztuak 15	Irun	Airez	Arma kimikoen mehatxua
Abuztuak 16	Irun eta Biriatu (Frantzia)	Airez	Bonba batzuk Biriatun erori ziren, mugaz bestaldean
Abuztuak 18-19	Irun inguruak: Guadalupe, San Marcos, Txoritokieta, Mompas, Urgulleko bateriak eta hiriko zenbait gunek	Itsasoz (España korazatua eta Almirante Cervera kruzeroa)	Eraso konbinatua, fortifikazioen eta hiriaren aurka; errefuxiatuen ihesaldia hasi zen
Abuztuak 20	Irungo hirigunea	Airez (Caproni, Junkers)	Egunero eta etengabeko bonbardaketa patroia hasi zen; 100 kiloko 3 bonba; Caproni 101 italiarrak erabili zituzten, eta

			munizio astunagoak baliatzen hasi ziren.
Abuztuak 22	Irungo hirigunea, Frantziako kontsuletxearen ingurua	Artilleriaz	Lau metraila-jaurtigai kontsuletxearen ondoan
Abuztuak 23	Irungo tren-geltokia eta makinaren biltegia; Ventas auzoa	Airez (bi trimotor)	Helburu estrategikoak: garraioa eta logistika; kalte handiak trenbide-instalazioetan; 45kg-ko bonbak
Abuztuak 24	Tren-geltokia; San Martzialerako errepidea; erdigunea	Airez (Caproni trimotorrak)	50 kiloko 9 bonba geltokitik gertu eta 3 errepidean
Abuztuak 25	Trenbide-sarea, merkatu plaza, bulego-eraikina	Airez (3 hegazkin)	20 bonba inguru; 4 zauritu; merkatu plazan eroritako bonba; sutea bulego-eraikinean
Abuztuak 26	Frantzia etorbidea, Colon pasealekua, Udaletxeko plaza; Lezo	Airez (Caproni 101) eta artilleria	Bonbak etxeak jo zituzten; Juan Larrondo/Ibarrondo auto-gidaria zauritua; 150 kg-ko bonbak jaurti zituzten, eta mehatxu eskuorriak ere bai.

Abuztuak 27	Eraikin publikoak, Colon pasealekua	Airez	40-50 bonba; Mehatxuzko panfletoak jaurti zituzten, Badajozeko sarraskiaz ohartaraziz; etxebizitza bat jo zuten Colon pasealekuan
Abuztuak 28	Tren-geltokia, Lasarteko aerodromoa, Kasinoa, Colon pasealekua	Airez (bi erasoaldi Breguet hegazkinez)	Kasinoa suntsitzen saiatu ziren; bonba batek etxebizitza bat jo zuen Colon pasealekuan
Abuztuak 30	Hirigunea eta San Martzial	Airez	Goizean 5 bonba, gero 4 leherketa herrian eta 8 San Martzialen
Abuztuak 31	Erdigunea, komentua, gasolina biltegiak	Airez (su-bonbekin; Caproni eta beste)	Ultimatuma eman ostean; suak piztu ziren erdigunean; 5.000 errefuxiatu baino gehiago Hendaiara
Irailak 1	Zentro Errepublikanoa, Eskolapioen komentua, tren-geltokia, Herriko Etxea, San Martzial Ikastetxe Katolikoa	Airez (Junkers, Fokker, Breguet)	150 bonba baino gehiago; eraikin ugari suntsitu edo kaltetuak; su-bonba eta lehergai astunak

Irailak 2	Poxpolo fabrika, iparraldeko geltokiko deposituak, etxe partikularrak	Airez (bonba inzendarioak)	Eraso masiboa (259 jaurtigai); Poxpolo fabrika sutan; biztanleria zibilean baja batzuk
Irailak 3	San Martzial Ikastetxe Katolikoa, Poxpolo fabrika (berriz)	Airez	Poxpolo fabrika erabat erre zen ("sute bortitza"); azpiegitura logistiko eta industrialak kaltetuak
Irailak 4	Hirigune osoa	Airez, artilleriaz eta kaleko borrokak	Azken eraso orokorra; matxinoen bonbardaketek eta erretiratutako miliziek eragindako suteak; hiria "kezkota hiri" bihurtu zen